



Euskarak erakutsi koloreak ikusten



Txema Preciado



Euskarak erakutsi koloreak ikusten



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jauriaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>

| | |
|--------------------|---|
| Argitaraldia | 1.a, 2009ko abenduan |
| Ale kopurua | 1.500 ale |
| © | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila |
| Diseinua eta azala | Antton Olariaga |
| Maketazioa | Antton olariaga |
| Argitaratzailea | Eusko Jauriaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz |
| Internet | www.euskadi.net |
| Inprimaketa | _____ |
| ISBN | 978-84-457-3034-8 |
| Lege gordailua | _____ |

Koloreek zer nolako pertzepzioa sortzen duten gudan argi bide daukagu: sentsazio diren horiek interpretatu egiten ditugu eta azaldu. Hala sortuko ditugu «elur zuria», «belar berdea» eta gisakoak.

Txema Preciadok idatzi eta UEUren eskutik datorren liburu honek koloreen gainean hausnar egitera bultzatuko gaitu, eta hurrenkera honetan gaiaren hainbat alderdi ikusaraziko dizkigu. Aurrenik kolorearen alderdi fisikoaz arituko da, ikusmenaren nondik norakoak gizakien zein animalien artean zelan egituratzen diren, zentzumenak zelan sortzen duen esperientzia kromatikoa alegia. Jarraian alde kulturelek biltzen dituzten konnotazioak izango ditu hizpide: nahiz eta gero eta orokortuago den zibilizazio batean bizi, koloreak hautemateko moduak tokian-tokian eta denboran zehar bestelakoak izan direla ohartuko gara. Munduaren errealitatea ulertzeko hizkuntzak darabiltzan mekanismoek ageriko utziko dute zein aberats den kultur artekotasuna. Hirugarrenez, koloreak interpretatzean euskarak dituen baliabideak ikasiko ditugu, liburuaren izenburuari zuzen erantzuten diona. Eta hemen gure aurretikoenganako zorra aitortu behar dugu, belaunez belaun jakinduria hori gordetzen egin duten ahalginatik. Gainera alboko erdarek gure hizkuntzan norainoko eragina izan duten koloreen izendatzean eta ulermenean ikusi ahalko dugu. Azkenik, laugarren atalean, gaiaren inguruan zenbait gogoeta bildu ditu egileak, aurretik landutako ikuspegiak kontuan hartuta.

Kultura Saila
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

AURKIBIDEA

| | |
|---|----|
| 1. OHIKO ULERKERA (OKERRA), ABIAPUNTUA | 11 |
| 1.1. Fenomeno kromatikoak, zertan datza? | 11 |
| 1.2. Kolorearekiko ikusmena: gizakiarena / animaliaarena | 13 |
| 1.3. Zer da beraz, kolorea? | 14 |
| 1.4. Memoria kromatikoak | 15 |
| 2. ALDE KULTURALA | 16 |
| 2.1. Errealitatea ulertzeko erak | 16 |
| 2.2. Hizkuntzaren garrantzia | 17 |
| 2.3. Globalizazioa. Baliokidetasuna | 18 |
| 2.4. Koloreak ikasi egiten dugu ikusten | 19 |
| 3. EUSKAL IKUSKERA | 20 |
| 3.1. Zenbat kolore, zeintzuk? | 20 |
| 3.2. Bilakaera historikoa | 21 |
| 3.3. Zuri, gorri, beltz hirukotea euskal koloreen oinarrian | 21 |
| 3.4. Urdin, hori kasuak | 31 |
| 3.5. Mailegutik hartutakoak | 34 |
| 3.6. Geure gainontzekoak | 35 |
| 4. IKUSPEGI OSATUA | 41 |
| 4.1. Egoki ulertzeko gakoak | 41 |
| 4.2. Euskara giltzarri | 46 |



HAIN GERTUKOA, hain betikoa, une oro begi-bistan, fenomeno unibertala izanda... esan daiteke erabat arrunta zaigun koloreak ez duela arreta berezirik bereganatzen. Eta, izan ere, arruntasun honek eragiten du fenomeno honen inguruko EZJAKINTASUNA eta, bereziki, ALDE KULTURALAZ ez ohartzea (eta hutsune horrek dakar geure euskal ikuskera dagoenik ere ez imajinatzea).

Era guztietako kultur ikuskerak daudela jakitun, hurrengo lerrook euskaldunok nola ulertu eta eratu dugun unibertso-kromatikoa azaltzea dute helburu, baita eraketa horretan hizkuntzaren funtsezko dimentsioa agerian jarri ere.

1. OHIKO ULERKERA (OKERRA), ABIAPUNTUA

Kolorea berehalako esperientzia da, zuzenean emozioetan eragina duena eta lehenengo begiradan ohikoa da jendearen artean koloreak *hor daudela, gauzatiek duten berezko ezaugarria* direla eta antzekoak entzutea. Hamaika adibideren artean hor ditugu kolore nagusiak direnentzako ageriko identifikazioak: ikatzaren belztasuna, elurraren zuritasuna, belardiaren berdetasuna, odolaren gorritasuna... Hiztegi batek (Elhuyar-Elkar, 1994) oinarritzko koloreak nola azaltzen dituen ikusi besterik ez dugu egin behar: «**zuri**: esnearen edo elurraren kolorekoa; **beltz**: ikatzaren edo ebanoaren kolorekoa; **gorri**: odolaren kolorekoa; **berde**: belarraren edo muskerraren kolorekoa...». Azken finean, kolorea abstraktua izanda ere, zaila da gauzakitik at «ikustea»,

erreferentziarik gabe imajinatzea eta lotu egiten dugu gauzakien gainaldeko nolakotasunarekin.

Hala eta guztiz ere, izatez, ez da egia, kolorea ez baita ikusten diren gauzakien berezko ezaugarri fisikoa; izan ere kolorea fisikoki ez da, sententzioa baino ez da. Horrela esango digu Küppers-ek (1980: 21-22): «Kanpoko mundua kolore gabea da. Kolore gabeko materia eta kolore gabeko energiak osaturik dago. Kolorea behatzailearen inpresio sententziala da (...), kolorea ez dago guk ikusten dugun lekuan. Kolore berdea ez dago uraza hostoan. Gorria ez da soineko baten oihalaren jabetza (...). Kanpoko estimuluak behatzaile baten ikusmenean kolorearen sententzioa sortzera motibatzen duenean baino ez da sortzen kolorea. Behatzaileak ez baldin badago, edo itsua baldin bada, ez dago kolorea sortzeko aukerarik».

1.1. FENOMENO KROMATIKOA ZERTAN DATZA?


Nola ikusten ditugu koloreak? Nola gertatzen da fenomeno hau? Ezaguna dugun eskema hona ekartzea lagungarria izango zaigu fenomeno honen nondik norakoa ulertzeko. Hauek osagarriak:

- **Argi-iturria** (naturala –eguzkia kasu– zein artifiziala –fluoreszente batena, linternarena...–).
- Ezinbestean **tartean dagoena** (atmosfera: nitrogenoa, ozonoa, oxigenoa, ura, hautsa...), baldintza batzuk medio, erradiazio elektromagnetikoen osagaiak zurga, iragaz, heda, isla, zeihar edota nahas ditzakeena. Airean dauden zatiki ñimiñoek eguzkiaren argi-izpiak barreiatzen dituzte guk, esaterako, «urdina» ikusteko

moduan (edo egunsentian arrosa, ilunabarrean gorrixka...). Honekin batera sarri izaten da objektu bat, gauzaki bat (sagarra, enborra...) argi-izpiek bertan joz edo zeharkatuz (beira, azetatoa...) edo gauza biak eginez.

- **Jasotzailea, detektatzailea.** Gure kasuan begia da berau, erretina hain zuzen, eta bertan –makilatxoekin batera– koloreekiko sentikorrak diren hiru motako konoak daude, espektroaren uhin longitudei erantzuteko (gorri, berde, urdin) gai direnak. Giza begian milioika dira eta mota hauetariko batean edota batzuetan kopuruak dezente murriztuak izateak ekarriko ditu koloreekiko «anomaliak» edo ezintasunak, modu orokorrean «daltonismo» izenarekin ezagutzen duguna.
- Hala ere, hauekin bakarrik ez da lortzen kolore-sentsazioa; hauei **nerbio-sistema** eta **garuna** gehitu behar zaizkie, bertako nerbio-bultzadak baitira kolore-sentsazioa sortzen dutenak, gero eta gehiago ezagutzen den zonaldean; horrela Rancillac-ek dioen bezala (1992: 29) anatomistek cortex ildaskatuaren oinarrian V4 deituriko zatia antzeman dute, hain zuzen espektro neurrien analisisian espezializatutako zatia. Zati horren lesio batek ez luke itsutasuna ekarriko, koloreen pertzepzioaren galera baizik.


Oliver Sacks idazleak, *Zazpi kontaera paradoxiko: antropologo bat Marten I* liburuan, adibide argigarri bi eskaintzen ditu honen inguruan: batetik, istripu baten ondorioz kolorea bereizten ez duen margolariarena, eta, bestetik ikusmena eskuratuta ikusten ikasi beharko duen jaiotzetiko itsuarena.



Nola ikusten ditugu koloreak?

Edozein modutan, espektro ikusgaia ezinbesteko erreferentzia dugu, gizakiarentzat soilik uhin mota batzuk baitira ikusgai, goitik eta behetik ageriko mugekin; horrela ditugu:

- Uhin-laburrak edo ultramoreak: 360 nanometroetatik azpitik daudenak eta gizakia ez da gai ikusteko.
- Espektro ikusgaia: gutxi gorabehera 360-385 eta 760-770 nanometroen artean dauden uhin longitudeak hartzen dituena.
- Erradiazio infragorriak: 770 nm. baino goragokoak; lehenengo kasuan bezala, giza erretinak ikusi ezin dituenak.




2

1.2. KOLOREAREKIKO IKUSMENA: GIZAKIARENA - ANIMALIENA

Gure zentzumenen bitartez jasotzen dugun informazioari esker errealitatea osatu, eratu eta ulertzen dugu. Informazio-iturri nagusia ikusmenean oinarritzen duen gizakiari harrigarri irudituko zaio animalia gehienek ez dutela zentzumen hau erabiltzen edota erabilia ere, bestela gertatzen dela ohartzea.

Dena den, ikusmenaz baliatzen diren animalien artean, agerian uzteko lehenengo gauza da gehien-gehienek espektro kromatikoa ez dutela gure modura ikusten. Izan ere, egitura fisiologikoaren arabera soilik argitasun maila ezberdinak detektatzen dituztenetik (muskulu edota zizarea mailarik baxuenean koka daitezke, nahiz eta begiez ezin hitz egin: argi-iluntasuna bereizteko baino ez dute ahalmena), egitura fisiologiko konplexuagoak dituztenetara maila asko daude. Oinarritzko bereizketa begi simple eta konposatuena



3



artean egiten da, eta kategoria honetakoak dira oskoldun eta intsektuak. Hauek begi konposatu pare bat dute eta begi bakoitza ehunka/milaka fazetek –omatidioak izenenkoak– osatzen dute; zenbat eta gehiago eduki, orduan eta hobeto ikusi eta muturrekoen artean txixiburruntzia aipatu ohi da, 30.000 bat fazeta izaten duelako.

Egitura fisiologiko aurreratuenen jabeak hegazti eta ugaztunak dira eta hauen artean ere ikusteko ahalmena berezia da: batzuk izpi ultramoreak detektatzeko gai diren bitartean beste batzuek oso eremu mugatuan baino ezin dute detektatu alde kromatikoa.

Modu orokorrean esan dezakegu txakurrek, katuek, behiek... gure inguruko abere gehienek ez dutela gure modura espektro kromatikoa ikusten eta, inongo zalantzarik gabe, gizakiok eratzten dugun unibertso kromatikoa –hain zuzen– horixe da, gurea, gizakiona.

1.3. ZER DA, BERAZ, KOLOREA?

Kolorea ez da hor, kanpoan dagoen zerbait, gugandik at berezko presentzia duena. Izatez, kolorea sentsazioa da,

Küppers-ek baieztatzen duen eran (1980: 9): «Kolorea sentazio hutsa baino ez da» eta behatzailearen beharra erabatekoa da.

Eskura dugun hiztegiaren batek isla dezake fenomeno honen inguruko ezagutza: «Eguzkiak eta beste argi-iturri batzuek ere uhin luzera desberdinetako erradiazio elektromagnetikoak igortzen dituzte eta hauek materiarekin topo egitean erabat edo partzialki zurgatuak izan daitezke. Zurgatu gabeko erradiazioak islatu egiten dira eta honek kolorearen sentazioa ematen du. Gauzaki batek iristen zaion erradiazio ikusgai osoa zurgatzen badu, beltz ikusten da; erradiazio osoa islatzen badu ordea, zuri ikusten da» (Harluxet, 1998).

Honek erlazio zuzena du hasieran planteatutako uste oker horrekin; izan ere, gure kaleko hizkeran «tomate kolorea» diogunean (berez itxura aldakorra duenaren gainetik abstrakzioa eginda) tomate sasoitsuari atxikia ikusten diogun gorritasun hori ari gara aipatzen, baina –hauxe paradoxa!– izatez tomate horrek uhin luzera



Tomateak erradiazioak jaso, xurgatu eta kanporatu egiten ditu

desberdinetako erradiazioak jaso eta zurgatu egiten ditu **gorria izan ezik**, hura baita kanporatzen duena (Finlay, 2004: 21-22).

Jende xumearen ustea bestelakoa da: gauzakiak kolorea dute, euren ezaugarria da, eta argiak prozesu hori agerian jartzen du. Baina uste okerrak bere horretan jarraitzeak ez du esan nahi fenomenoaren ezagutzan aurrerapausoak eman ez izana. Deskartes-ek 1630. urtean gauzakien kolorearen sortzaile bezala argia identifikatu zuen eta denboran atzera joanez gero ideia honekin ere topo egiten dugu: Epikuro bera (341-270 K.a.) gauzakien kolorea argiarekin aldatzen zela ohartu zen eta gauzakiak berez kolorerik ez zutela ondorioztatu.

1.4. MEMORIA KROMATIKOA

Hala eta guztiz ere, gure usteak hain iltzaturik egotearen arrazoiaz galde dezakegu, Rancillac-en hitzak erabiliz: «Kolorea ez da berez existituko eta hala ere badakigu limoiak horiak direla, udako zerua urdina dela, teilaz osaturiko teilatua gorria dela (...) Nondik datorkigu gauza bakoitzak kolore bat duen erabateko ziurtasun hori, berau ezagutu eta epaitzeko balio duena?» (1992: 70-71).

Abiapunturako baliatu dugun uste okerrak badu izan funtsik eta memoria kromatikoa deiturikoak lagun diezaguke hau ulertzen. Lersch-en adibideari jarraituz (1971: 353), hosto berdeko zuhaitz baten gerizpean dagoen paper orri batek argi berdexka islatu egiten du eta argi horixka kandela baten eraginpean ikusten badugu; diferentzia hauek izanda ere, guk zuritzat hartzen dugu. Zergatik hau? Gure hautematearen

funtzionatzeko eran dugu erantzuna: zentzumenek aldaketa, ñabardura eta zehaztasunak jaso egiten dituzte, bai, baina gure hautemateak finkatzen ditu lehentasunak eta, halako baldintzapean ikusita ere, gehiago interesatzen zaio objektuaren identifikazioa ñabardura kromatikoa baino. Errealitatea egonkor eta iraunkor agertzea garrantzia handikoa da guretzat; gauzakiek itxura mantentzen duten bitartean beraiek identifikatzea, komunikatzea erraz dugu; baldintzak eta eragiten dituzten aldaketak bigarren mailan gelditzen dira premiazkoa den identifikazioaren ondoan.



Objektuaren identifikazioa lehenesten dugu, ñabardura kromatikoak izanik ere.

5

2. ALDE KULTURALA

Kolorea behinik behin kultur fenomeno da

(Pastoureaux / Simonnet, 2006: 74)

2.1. ERREALITATEA ULERTZEKO ERAK

Hautematea begiak ireki eta –pasiboki– jasotzearekin lotzea errotik da faltsua. Errealitatea, izatez, ez da egina etortzen zaigun zerbait berau izendatzean, besterik gabe identifikatzen duguna; guk eraginkor jokatzeko dugu errealitate egituratze horretan: jasotzen ditugun estimuluak prozesatu egiten ditugu (ezagutza, esperientzia, interesen arabera) esanguratsua bilaka daitezela.

Kulturek eskaintzen dizkigute munduari buruzko ikuskerak, errealitatea eratu egiten dugu gure testuinguru kulturalaren pean eta prozesu honetan hizkuntzek egiteko oso garrantzitsua jokatzeko dute, bakoitzak errealitatearen alderdi ugariak aztertze, aukeratzeko eta deskribatzeko modu berezia baitu. Horrela, artzaintza jarduera nagusienetarikoa duen kulturak oso hiztegi aberatsa izango du ardi motaren inguruan (axuri, bildots, ardiantxa, ardi...); harreman familiarren eraketan batzuk garatuagoak beste batzuk baino (neba, anaia, arreba, ahizpa «hermano/a»). Generoa ez da euskaraz bereizten; beste hizkuntza batzuetan, aldiz, bai, eta horri loturiko kontu bitxiak ere: gaztelarekin alderatuta alemaneraz «zulia» femeninoa da eta «giltza» maskulinoa. Agerikoa da: era diferentek errealitatea eratzeko eta nahi beste adibide aipa daiteke: Melanesian txakurrek ez dute lau hanka, bi baino ez («besoak» dira besteak).

Baina badira hain «ukikorrak» ez diren errealitateak ere, aldar-tearena esaterako: tristura, esperantza, malenkon-ia, goibeltasuna, histasuna... eta kultura guztiek ez dute berdin egituratzen; esaterako, Polinesia-ko zenbait hizkuntzak ez dute «depresio» hitzik euren hizte- gian.

2.2. HIZKUNTZAREN GARRANTZIA

Kulturen arteko diferentziak azalekoak zein sakonak izan daitezke baina errealitatea ikusteko, antolatze- ko eran hizkuntzak zeregin garrantzitsua du.

Gauzakien berezko ezaugarri fisikoa ez izanda, gugandik at ez dagoen sentsazioa izanda, abstrakzioa izanda, kolorearekin lan egiteak hizkuntzarekin lan egite- ra behartzen du (kolore-hitzik gabe ez lego- ke kolorerik).

Eta sentsazioak gizabanakoarenak badira hizkuntza giza taldeari dagokio: kolore ikuskeraz aritzean testuinguru kulturala ezinbesteko erreferentzia dugu.

... Ama hizkuntza ikasteaz batera umeak mundua eratzeko alderdi sintaktikoa eta semantikoa antola- tzen ditu. Haren begiradak eraikiko du errealitatea, hizkuntzak baldintzatutako bestelako behakoe- k zuzenduta baina. Inkontzienteari ahaztutako kontuek agintzen badiote ere, hitzek badute iragana eta psiko- analizatu ahal dira. Aukera egin beharrak eta inguru- ko premiek ahalbidetu dute hizkuntzen eboluzioa, baina fonetikak, joskerak, semantikak... guztiek islatzen dute aspaldi sortu zen hizkuntza. Mintzaira ikastea- rekin batera, haren inkontzientea ere jaso ohi dugu, nahi gabe, eta dagoeneko gudan da.

(Marina, 1992: 13-14)



6

Arazoa ez da kolore espektroaren sailkapen linguistikoa soilik, baizik eta koloreen bidez egiten den giza esperientziaren sailkapena.

(Joseba Sarrionandia)



7

Hizkuntzen arteko aldea ez dute soinuek edo kodeek sortzen, munduaren ikuskerak baizik.

(Wilhelm von Humboldt)

Honek ez du inondik inora suposatzen determinismoetara makurtzea («halako hizkuntza halako pentsaera») baina errealitatea hautematean hizkuntzaren eragina agerikoa da, sarri entzun izan dugun Wittgenstein-en ekarpena lekuko: «Hizkuntzak errealitatearen eta munduaren mapa sortu du, eta hortaz, hizkuntzaren mugak munduarenak dira». (–1922– 2001: 143). Hein batean, mundua izendatzea mundua ezagutzea dela esan genezake.

Gure gaiari helduta, koloreak hautematerakoan beste hainbeste esan dezakegu eta erlazio nabari hau maiz izan da nabarmendua, Luriaren iritzia kasu: «Kode linguistikoek koloreen hautematearen eratzean eragin handia dute, esan nahi baita: hizkuntzaren alderdi lexikoak eta semantikoak pertzepzioa nabarmen baldintzatzen dute». (1980: 22).

2.3. GLOBALIZAZIOA. BALIOKIDETASUNA

Mendebaldeko ikuskera nagusitzen dela adieraztea ez da huskeria eta arazo honetan globalizazio kontzeptua ez zaigu arrotza, zenbait kasutan akulturazio prozesuez ere hitz egin daitekeelarik.



Hizkuntza bat ikastea ez da berba berriak identifikatu eta beste barik sailkatzea; aitzitik, gure esperientziak bizitzeko beste aukera bat da.

(André Martinet)

Abiapuntutzat hartutako ulerkerarekin erlazonaturik, ez da harritzekoa koloreen erabilera baliokidetsuarekin topo egitea, hots, hiztun batek halako kolorea aipatu eta beste hizkuntzetan baliokideak azaltzea («kolorea hor dago, gorria izendatu zein “rojo”, *rouge, red, vermell, rosso, kırmızı...*»); era honetan halako zerrenda lor dezakegu:

| Inguruko hizkuntzak | | | Euskara |
|---------------------|--------|----------------|---------|
| white | blanc | blanco | zuri |
| black | noir | negro | beltz |
| red | rouge | rojo | gorri |
| green | vert | verde | berde |
| yellow | jaune | amarillo | hori |
| blue | bleu | azul | urdin |
| brown | marron | marrón | marroi |
| purple | violet | violeta / afil | more |
| pink | rose | rosa | arrosa |
| orange | orange | naranja | laranja |
| grey | gris | gris | grisa |

9

Honek baditu, jakina, arrazoi praktikoak, komunikatiboak (ahaztu ezin direnak) baina ezin dugu adierazi baino artifizial egin den eskema baten aurrean gaudela; ikuskera nagusi honek itzali egiten ditu gurea bezalako kultur ikuskera xumeak. Geurean sakondu nahi izanez gero, berehala azaltzen dira zirrikitu, arrakala eta bestelako pitzadurak: agure baten *ileurdina* ez da *azul, langile zuri* ez da *blanco* «alferra» baizik, *Aitzkorri* berban ere ez da «rojo», *ume gorri, hanka gorri, hitz gorri, haize gorri, negu gorri* eta abarretan ez diren bezala.

8

18

2.4. KOLOREAK IKASI EGITEN DUGU IKUSTEN

Egituraketa hauen arrazoiak non dautzan ikusteko espektroaren izaera kontutan hartu behar dugu, hau etengabeko *continuum* bat baita eta kultura bakoitzak (inguruko elementu nagusiak eta eragingarriak direla, inguruarekiko dituen harremanak, e.a.) bere erara zatitzen du, hainbeste kolore ikusiz ere: «Kolarearen eremua continuum bat da, izenek zehaztutakoa... Baina izendatze hori, hau da, koloreak hitzen arabera sailkatzea, ez da norberaren hautua, ohiturek agindutakoa baizik. Jasotako hizkuntzak erakutsi digu bidea, eta, hortaz, hizkuntzen araberkia da koloreen hautematea». (Mitxelena, 1985: 167-168).

Nahiz eta koloreen egituraketa erabat arbitrarioa ez izan, agerikoak dira ezberdintasun kulturalak. Hauek oro har, *espektro kromatikoa zatitzerakoan* gertatzen dira (zenbat kolore, zeintzuk, eremuak...) eta honen harira testigantza ugari dugu: «Hizkuntzalari eta etnologoak harritu egin dira espektro kromatikoa sailkatzeko hizkuntzek darabilten moduarekin. Zuni hizkuntzan, kasu, adiera bakar batek biltzen ditu ingelesaren *orange* "laranja" eta *yellow* "horia" ... eta gaieraren *glas* berbak ingelesaren *green* "berde", *blue* "urdin" eta *grey* "grisa" batzen ditu (Hudson, 1981: 98)».

Baina ez dira garrantzi gutxiagokoak *erabilerei dagozkien ezberdintasunak*, erabilera sinbolikoak barne; hona hemen aukera batzuk:

Kolore ezberdinak, adiera bera:

- a) Monje budisten artean **azafran koloreko tunikak** erabiltzen dira (bere garaian

zigortutako kriminalek eramaten zituzten kolorekoak); esaten denez, Budak berarentzat hartu izan zuen apaltasun ikur gisa. Monje kristauak beste koloreak erabiltzen dituzte (**marroi, gris...**) «munduari» ukazioa adierazteko.

- b) Dolua: ohikoa dugu **beltza**, baina Papuan, Ginea Berrian, **buztin zuria** erabiltzen dute eta Bali, Madagaskar eta abarretan... **kolore biziak**, mundu berri eta hobe baterako hildakoak hasten duen bidaia dela adieraziz.

Kolore berdinak, adiera ezberdinak:

Ezkontza ospakizunetan (Europa mendebaldean) emaztegiaren jantzia zuri izan ohi da, garbitasuna, birjintasuna... adieraziz. Japoniar emaztegiak, ordea, zuriz jantzita bere familiarentzat «hil egin dela» adierazten du.

Gertaera bera, kolore diferenteekin:

Ezteiekin jarraituz, **zuri** horren nagusitasuna zalantzan jar daiteke: (bitxikeria kasuak alboan utzita) lehen **beltzez** jantzita ezkontzen ziren, ekintza serio, dotore, ganorazkoak merezi zuen eran (kolore argiak, zuriak egokiagoak jai girorako eta ez hain aproposak transzendentzia handiko ekintza horretarako). Bolivian, aldiz, **gorri** da nagusi senar-emazte zein gonbidatuen artean: sexuaren grina, maitasuna, poztasuna... adierazteko.



3. EUSKAL IKUSKERA

Koloreen eremuan euskal kulturak zein ikuskera duen planteatzeko unea da. Zailtasunak, eztabaidagaiak eta abar ahaztu gabe (egungo – lehengo ikuskera / hiritar – kaletar – baserritarrena / lurralde osokoa – zonalde batekoa...) ezagutzen eta erabiltzen ditugun koloreak gogora ekartzea izango dugu abiapuntua, ur sakonagoetan sartzeko gero.

3.1. ZENBAT KOLORE, ZEINTZUK?

Zuri
Beltz
Gorri
Urdin
Hori
Berde
Gris
Arrosa
More
Marroi
Laranja
Beige
Butano
Fuksia
Nabar
Teila
Hezur

10

Ezagutzen ditugun koloreak zerrendatuz gero, honen antzeko zerrenda osatuko genuke:

Zerrenda motzago edo luzeagoa izanda, seguruenen halako sailkapen baten beharra sumatuko dugu, denak ezin baitira maila berean kokatu: sinonimoak dira batzuk (berde, orlegi), erabilera zehatzekoak besteak («teila»...

Berehala ohartuko gara gutxienez bi multzo nagusi osa ditzakegula: jatorri euskalduna dutenekin bata, mailegutik hartutakoekin bestea. Zalantzarik gabe, zerrenda luzeagoa osatzen dute bigarren honetan identifika ditzakegunak: alde batetik (Berlin & Kay-ri jarraituz, 1969) nagusiak, oinarritzkoenak, zabalduenak (**berde, marroi, gris...**) eta bestetik, zerrenda amaigabea osa dezaketen gainerakoak (oinarritzko baten

ñabardurak direnak: **karmin, bermiloi, granate...** erabilera zehatzetarakoak: **kaoba, teila, artile-kolorekoa, hezur...** eta abar).

| | | |
|--|--|--------------------------|
| ZURI BELTZ GORRI URDIN HORI | Nabar Arre Ubel Orlegi ... | Jatorri euskalduna |
| BERDE GRIS ARROSA MORE MARROI LARANJA | Beige Butano Fuksia Kaoba | Granate Hueso Teja |
| | | Jatorri erdalduna |

11

Jatorri euskalduna dutenen artean berebat bereiz ditzakegu alde batetik nagusiak, oinarritzkoenak eta erdal eremukoekin parekotasuna azal dezaketenak (**gorri, beltz, zuri...**) eta bestetik neologismoak, ez hain erabiliak, eremu kromatikoan modu errazean koka ezin daitezkeenak eta abar (**nabar, ubel, arre...**).

Panorama honen aurrean hiru ezaugarri azpimarratzeko:

- ◆ Euskarak hiztegi kromatiko urria du (bereziki oinarritzko koloreei dagokiena).
- ◆ Euskarak mailegutik kolore-hitz ugari hartu ditu (kasu batzuk deigarriak, berdearena adibidez).
- ◆ Euskarak badu kokapen kromatiko zehatza, aise egiten ez duen multzo interesgarria.

3.2. BILAKAERA HISTORIKOA

Egun deskriba dezakegun panorama ezinbestean bilakaera historikoaren ondorio gisa ulertu beharrean gaude eta prozesu dinamiko honetan gure kulturaren bertan izandako berezko bilakaeraz gain, kanpoko eragileek nabarmen eragindakoa oso kontuan hartu beharrekoa dugu. Honen harira lagungarria izan zitekeen hasieratik emandako faseak ezagutzea (Preciado, 1995b) baina besterik ezean, egungo egoeratik atzera begiratzeak lagunduko digu oraina bera ulertzen, baita etorkizunaz nola jokatu behar dugun hausnarketa egiten ere.

Joera dinamikoaren isla izan daiteke eskema bikoitz hau:



12

Erdal eremuen gainjarpena agerikoa da. Dena den, azpimarratzekoa da euskaldunaren kaltetan erdal eremuak etengabe hartzen duen zabalera izen erdaldunak geureganatuz, geureak direnak ahanzturan utziz eta, are larriagoa, euskal kolore-hitzen jatorrizkoen esanahietan galtze progresiboa ematea erdal kidekoetara lerrotuz; horrela, *gorriak* berezko duen zabalera kromatikoa (hori, laranja, arrosa, marroi...) murriztu erdarazko *rojo, red, rouge* hitzen adierara makurtuz, erdarazkoen etara mugatuz, berezkoak dituen adiera sinbolikoak galduz... Funtsean prozesu honen arriskua geurea ordezkatzeko dela esan genezake, hots, nahiz euskal hitzak erabili erdal ikuskera adieraztea.

Mendetako euskal kulturaren hondamendiaren adierazpide tamalgarriena hizkuntzaren pobretzea da. Guk geuk utzi genion pentsamendua euskaraz sortzeari... Gure hizkuntzan du leku gure arrazak. Pertsona eta hizkuntza parez pare ikusten ditugu, baina bigarren hori dugu barru-barruan, gure izpiritua ezaugarri behinena da. Gure unibertsoa da.

(Oteiza, -1963- 1984a: 22)

Egungo errealitatean ez da asko arakatu behar ordezkapen prozesu honen adibideak aurkitzeko baina, aurrera jarraituz, egin dezagun koloreetatik errebasoa geure ikuskeran sakontzeko.

3.3. ZURI, GORRI, BELTZ HIRUKOTEA EUSKAL KOLOREEN OINARRIAN

Hiru hauek dira, Lartzabalek dioen moduan: «euskal etorkiari sakonkien lotuak diren koloreak» (1975, 401). Hirurak agertzen dira nagusitasunez, hirurak

21

14



Justo Mari Mokoroa (1901-1990).

dira antzinakoak, hirurak oso maiz erabiltzen dira toponimoetan, hirurak Euskal Herri osoan hedatuta daude, hirurak sailkapenetan oso erabiliak eta hirurak dira, kolore-hitz zaharrei dagokien bezala, kromatikoak ez diren esanahi ugariaren jabe.

Hurrengo lerrootan adiera ugari azalduko dira eta hauek adibidez adierazteko Mokoroaren lana (1990) izango dugu erreferentzia nagusia; adibideak jasoak izan diren bezala eta informazio-iturria aipatu gabe agertuko dira.



13

22

ZURI

Lehenago begiradan arazorik gabe **blanco, blanc white** erdarazkoen pare koka dezakegu gure «zuri»: *Ingurumai guztia baserri txuriz betea dauka gure Oñatik*, eta indarra emateko errepikatuz agertzea ere guztiz arrunta da: (*Elurra*) **txuri-txuri nola ari dan** begira geunden... Hala ere, halako testuingurutan **kolore-falta** ere adieraz dezake: **Zuri-samarra** zegoala atera zuun, labetik tarta.

Kromatismoaren inguruan sarri ematen den adiera **argi, argitasuna** da; esaterako, *begizuri* esanda, berdexkak, urdinxkak... zehaztu gabe baina begi argiak ari gara aipatzen: «Begizuria faltsua omen da» (Barandiaran 1962, IV: 94). Argitasuna ere adierazten da holakoetan: *Ainbat bidar egin dogu dantzian, ivetargi zuritan!* Beste adiera honetara ere gerturatzen gara: **zuribil**, lehen aipatutako kolore-falta horri lotuta: **Oso kolore-zuria** dabil aspaldi onetan Honen harira ez da arraroa ileak **kolore galtze** prozesuarekin lotzea ere: **Buruzuritzen** asi da baño... ai zer mutilla dagoan!

Zuritasunarekin batera **garbitasuna** ere azal daiteke, batez ere garai bateko egoeran kokatzen bagara: **Txuri-usaia** darien izara-tartean daukagu aitontxo bat.

Gogoan hartu arropa garbitzea, jabonadura, bogada egitea **zuri-garbi** deitu izan dela: *Eztakie etxeke alabak zuri-garbia zelan egin, ez erraari, onez jateko bat, ondo ateraten*. Eta soka horri tiraka, oro har arropa zuriari deitu izan zaiola esan daiteke: *Ene alaba: etzeukanagu zuritasunik etxean*. Baita kulero, galtzontzilo, kamisetei ere: **Soin-zuri** ta abar ogerleko *pillá aundia gasta bear izan degu; baña nekea eman leike bera nor portatzen bada*.

Sailkatzeko sarri erabilia, berehala ohar gaitetzke modu zabalean ulertzen dela zuria eta ez zehazki modu deskriptiboan: ardo zuriarenak balio dezake hau argitzeko, izatez ez baita zuri-zuria, horixka eta ñabardurekin baizik; testuinguruak ere lagun dezake egoki ulertzen, zenbaitetan edari alkoholduak adierazten baitira: *Len ardo adiña edo geiago saltzen da edari zuritik*. Oro har, sailkapenetan testigantza ugari dugu: **ogi zuri**, **zuringo** (begi zein arrautzarena), **eguzki zuri**, **zuriko** (txanpona), **urrezuri** (zilarra), **azienda zuri** (ardi, ahuntz-eta), **izotz zuri**...

Fruta, berdura, enborra eta abarren kasuan zurituarekin **azala kentzea**, soiltzea, adierazten da: *Txikiak dira gaurko patatak: txuritu-ere ezin diran-alakoak*.

Dena den, oso maiz zuriaren erabilerak eremu kromatikotik haratagokoak dira; metaforak sarri azalduko dira eta, testuinguruari zordunak direnez adi egon behar; **patrikak zuritu** ezagunenetarikoa dugu: *Gerrako gastuak nola zuritu (ark erabakiko du)*, eta zenbaitetan testuinguru kristaua ezagutzea beharrezkoa izango zaigu: *Nork atera gaitzake Satanas-en menpetik? Nork garbitu gure jaio-kutsu ta beste gañerako erruak? Berez axuri (arditxuri) jaio zanak / (...) Enekian nor zan baiña ardi zuritzat neukan... alegia, orbanik gabea, dohatsua*.



15

Txikiak dira gaurko patatak, txuritu ere ezin diran-alakoak.

Alferkeria estuki lotua izan da zuriarekin, bai lanerako erabiliak diren abereekin (zaldi, mando, asto, idi... **zuri**; *Inori behor zuria etorri > nekatu*) bai gizakiekin ere: horrela **gizon zuria** alferra izango da, lanari izkin egiten diona: *Gizon ederra, bierrien -lanean- zuria -alferra*. Eta nagia ez bada –«arraza zurikoa» berri samarra dugu–, **faltso**, **losintxari**, **balakari**, **itxurati**...: **Zuri-galdu ori**... *zer abill or?*

Alferkeria kontzeptuarekin jarraituz esan daiteke 'benetako' lanaren aurrean **lan zuria** izendirik botatzeko ez dena adierazteko erabiltzen dela, lan samurra: *Lengo lepotik zeukak orrek burua...: beti lan-txuri... / Gizon gorputzgillea lan zuria*, eta bizitzaren benetako gogortasuna probatu ez duena **zuri hazitakoa** izango da: *Azal-apañetan azia; zuri azitako semea*.

Era honetara ezaugarritutako gorputz atalek laguntzen dute adiera hauetan murgiltzen: **esku zuri** alferkeriarekin agertzen da lotuta (*plaza gizonak eskuak zuri / Auherra (alferra) esku zuri*); sibirita, mokofina **moko-zuri** izango da (*Gure etxekeak moko-zuriak*

girela diote hor); boz mehekoari **eztarri- zuri** deituko zaio (*Gizon eztarri-zuri ta emakume eztarri beltzeta gorde gagizuz, jauna, orain eta beti*); **buru-zuri** babazto, ergel, txolin (*gizonak oro buru baltz, andra guztiok buru-zuri*); faltsua da **irri zurikoa** (*zer irri zuria* eginen duena *Ganix-ek bere baitan!*); **barne-zuri** tranpati, faltsua izango da (*barne-zuria da* gizon hori; **zakur-zuria**); **odol zuri** erabiliko da indar gutxikoa, beldurtia izan adierazteko (*Odola zuri-samarra duen gizona da* (aizkolari ori): *berari tokatzen zaion puskatik ezpal bat ez da erori...*).

Ipurdiarekin adibiderik ez zaigu faltako eta holakoetan gizonetzkoari atxikia agertuta **Ipurtzuri, Marizuri**—ustezko gizontasuna (garai bateko ikuspuntutik, jakina) zalantzan jartzeko izaten da: **Olako gizon maritxurik!**... *Beti dabil au zar-barri billa, buru-arin au!*; ildo beretik azal daitezke: **uzkixuria, ipurtzuria, buztanzuri**... Testuinguruari erreparatuta balakari, lausengari, koipetsuari ere aplikatuko zaio erabilera hau: *Berea egin, eta orain neri ipurzuriketara?* eta, modu orokorrean, alferrari: *Orrako beste ori?... Ipur-txuri galanta, lanerako!*

Ele zuri izango da hitz losintxari, milikari, lausengarriak erabiltzen dituen (*bere ele xuriek in gu-ere bere alderatu uste du zuriketari orrek...* / **Ele zuriak** aitzinetik, ostiko gibeletik); adiera bertsuarekin **mingain zuri** (*mingain zuriaz dabiltsan oiek... biotza tranpaz betea*) eta enparauak: **aho, ezpain zuri** (*ago zuriz* limurtzen zuten Jainkoa; *bere mingain gezurtiz* / *Erauzi beza Jaunak ezpain-zuri oro*), **hizketa zuri** (*naikoa guzur ta barriketa zuri laban bá eban*); ildo beretik doaz **zuri-zuri ibili** (*Erritik iges egin bear orain guk beste oriek bezela nai ez dogulako ibilli zuri-zuri*

ugazabaen aurrean! / *Gehiago lortzen da xuri-xurika* —palaguz, losintxaz—, *ezen ez usika* —oihuka—), koipekeria, eztikeria, lausengukeria adierazten duten **zurikeriak** (*Ortik kanpora dana guzurra ta zurikeria*), **zuriketari**, **zurikatzaile** (*Errege balitz eta oraino bizi bá luke zenbait zurikatzaile...!* / **Zurikatzaileak** agoa bero; *ta gauza ona gero...*).

Honen harira aditzarekin hainbat forma ditugu esanahi bertsuaren inguruan: **zurikatu nahian ibiltzea**, **zuri-zuri bizitzea**, **gezur zuriketan ibili**... xaboa eman, koipetu, lausengatu, losintxatu adierazteko; baita **konbentzitu** ere: *Nire lagun onen esanak zuritu nenduen* / *Orduantxe zuritu zan gure gizon ori astoa lengoa berbera zala*. Hedatuagoa dugu «justifikatu», «norberak bere burua garbitu» (*Lege-gizon arek, bere burua txuritu naiez au esan zion Jesus-i: «Eta nor da nere lagun urkoa?»*), **disimulatu**, **gainzuritu**, **zurikatu** (*Bere barruko triperrea txurizkatu nairik bera-ere leiora abiatu zan, ezkonberrien soñuetara...*), ez hainbeste **defendatu** (*Ezetz esan nai dunak bere iritzia zuritu dezala!*). Halako testuingurutan dugu **lasaitu** adiera (*Au entzunik puska bat atsuok zuritu ziran* / *Gosea ta egarria (...)* zelan edo alan **zuritu** ta arinduz, *emon zituan umetako urteak*) baina **zuri-murian ari** entzunda, berehala jabetuko gara iruzur egitea edo antzeko adieraren bat dela (*Beste sort-kari bat asmatu zeban gure jendea txurikatzeo asmoan*).

Eta zerrenda ez da hemen amaitzen: **min zuri** intentsitate gutxiko mina da, zorabioa (*Min zuria du arraunzale arek: lagumen arreta bear ta an ditu guziak gogoz...*); **zuri egin** huts egin, tronpatu (*Soroa aberats, eta anima lur-gorri?... Txuri egingo genduke, txuri egingo genduken bai!*); astegun arruntari, lanekoari

astegun buruzuri esaten zaio (*Zer dabizu, soñekorik onena jantzita, astegun buru-zurian?*); bizkaieraz **eguen zuri** deitzen zaio beste tokitan ezaguna den ostegun gizenari (*Eguen-zuri egunean umeak koko jantzen (jazten) ziran*); ilusioa, errealaz ez dena **amets zuri** izango da (*Pake-zaleak edozein baztarretan ikusten ditugu: ez gaude, ez, amets zuritan*); itsas barea **itsas zuri** izango da, **haize zuri** hegoaldeko indar gutxikoa...

BELTZ

Antzeko egoera dugu beltzarekin eta alderdi kromatikotik begiratuta erdarazko **negro, black, noir** eta abarren mailan kokatuta dugu. Arraza beltzekoak horrela izendatuta ere (*Jamaika-ko beltz orrek... –guziz ona zala baño artu du egurra! Urtainen ukabilletik*), **larru-beltz** oso erabilia dugu beltzarana adierazteko (*Beltzarana naizela zuk omen diozu; enaiz zurigorri; egia diozu*) eta oro har ohikoa baino ilunagoak diren larru azalak, giza talde batenak kasu (*Beleak sarraskira aurrena baitoaz ijito azal-beltzak an dira denboraz*) edota egoera baten ondorioa (*Eguzkiaren berotasunak azalez gaztelarturik –baltzizkatirik– gaukaz*). Dena den oso sarri **ilun** adiera agertuko zaigu beltzarekin eta zenbait erabilerari konnotazioak antzematea ez da zaila izango.

Itxura kromatikoarekin jarraituz eta har ditzakeen ñabardurez ohar gaitzen, **beltzune** aipa dezakegu, bi esanahi gogoan hartuta: kolpe baten ondorioz larruzalean agertzen den ubeldura (*Ondiño-be ez ei-yakez baltzituak kendu*), tokian tokiko bestela ezaguna («ubelune», «ubeldu», «baltzittun», «batzgorritu»)... eta bestetik, orbana edo tarte beltza (*Baltzune bat-bagarik zuritu-izu kareaz etxea edurra añean, dan-danean bardin*).



Baba beltzak.

16

Ezaguna denez, sailkatzeko sarri erabiltzen da eta adibideak erruz aipa daitezke, gehienetan beste motak –zuri edota gorri– inplizituki antzemanaz: **ogi beltza** (zuri), **ardo beltza** (zuri, gorri), **tabako beltza** (gorri), **azienda beltza** (zuri, gorri), **baba beltzak**...

Edozein modutan, kromatikotik aldentzen diren esanahien eremua biziki aipatu beharrekoa da. Ohikoa denez, kromatismoarekin harreman dutenekin hasita aldentez progresiboa zehatz daiteke eta azpimarratzekoa da zein erraz egiten den salto maila batetik bestera.

Begi beltza har dezakegu adibidetzat: funtzio deskriptiboaren parean («begi ilunak») bestelako baloreak ere agertuko dira (*Irakurleak ezagututen dau*

17



Begi-beltzari eder deritzote.

25

Eladitxo, begi baltz ederraren jaubea), Barandiaranen ekarpena gogorarazten diguna: «Begi-beltzari eder deritzote» (1962, IV: 94). Baina begiak kromatikoki ezaugarritzetik haratagokoak erraz ager daitezke (*Gabak begia baltz; gabea beltzago*). Beste hainbeste dugu **beltzaran** adierarekin, larruazalaren ezaugarriarekin batera beste konnotazio batzuk erantsiak izaten baititu; horrela **mutur-beltz** (oro har kanpotarrei zuzendua) edota **hezur-beltzak** (*Mutur-beltz arek esan bear neri: «a tu tierra!» Oek etorri bear, gu neurtzera! / Eztira azur-beltzak: geutar-geutarrak dira / Ijitoen hezurak, hezur-beltzak...*)

Beste adieren eremutik erreparoa eginda kasu ugari topatuko ditugu; hor dugu **zikin** (*Biraoz baltziturik daukazuen min loi ori*), **triste**, **atsekabetu**, **goibel**, **itzaltsu** (*Beltz dago ene arima hiltzeko heimeraino / Burutasun baltzakaz jagiten da beti goizean goizeti –zorpean dagoana–*), **hostotsu**, **sartatsu**, **abartsu** (*Arboletan den ederrena da ohian beltzian bagua*), **haserretuta**, **negargarri**, **bekoskoa** («*foxe nun da?*» ta «*Lotara joan da*»... **beltz-beltz** erantzun diot / *Bearrak muturre beltza / Bizitzen dakienak ezti diru horri beltzuri eginen / Kopeta beltzarekin egon nintzan... / Arpegirik baltzena ta latzena dauken aldetik gauzai begiratzen dautse... / Anboto-ko señorak baño betozko beltzagoa jartzen du neskaerl labio onek*), **maltzur**, **gaizto**, **zital**, **doilor** (*Haizen bezalako arima beltza! / Barne beltzeko gizon bat / Elgarren arteko amorioa nahi die, eta ez bihotz beltza / Odol otzean il zun... Odol beltzean*), **etsaigoa** (*Bere golkoan dauzkan xede beltzak –agertu ditu–*), **kalumniak** (*Egillearen itzak ekarriko ditut emen gezur beltz bat erantsi ez diodala irakurleak ikusi dezan*) baita aditz forman ere (*Lagun urkoa ez duzu beltzatuko...; ez indarrez zapalduko*).

Dena den, oso maiz aurkituko dugu gisa honetako adierak: **zorigaiztoko**, **beldurgarri**, **negargarri**, **gogorra**, **zaila**... (*Baltza dok gosea, mutillak! / Zure erriari baltzak deutzazuz erakutsi, fauna! / Ez dira izutuko egun beltzean / Dagoaneko negu beltzaren beldurrak jarria zaude...*), **zoritzarreko**, **ikaragarri**, **ezbeharra** (*Au da lurak gaiñean duan gauzarik beltzena...; eriotza du izena... / Ori baltza dok gero! / Naigabe beltz batek mendean artu nau*), **elorrri**, **nahigabe**, **atsekabe**, **estutasun**, **itoaldi**... «beltzak esan, aditu, ikusi» eta tankerako formekin (*Jaunkoia da gure beltzaldi guzietan pozten gaituna / Beltzak esan nizkion... / Bestela beltzak ikusteko gaude... / Latzak eta baltzak ikusita ago...*).

Hala ere, beti ez da zentzu peioratiboan hartu behar; hor dugu adibide sorta **serio**, **ganoraz egindako lana** eta abar (*Onegi izateak eztu balio: Beltza beltz jarri bear da, bear dan tokian / Lana beltz eginda baizik eztu lurak ezer ematen / Bibote beltzak biarko zetik ori autsiko duenak! –Atano pelotaria– / Gizon oro buru baltz zentzudunak*).

Oraindik erabilera aipagarriak aurki ditzakegu **engainatu**, **ziria sartu** adierekin (*Baltza egin deuskuzu! / Baltza sakatu*) eta beti geldituko dira beste kasu batzuk amaigabea ematen duen zerrendan: **haize**, **ipar-beltz** (*Atzo goizean, aize-baltzaz, euriaz eta otzaz negu-antza artu eban / Ipar-beltzak ondore gaitzak*), **eskergabekeria**, **esker txar** (*Serbitzari esker-beltzekoa: nik zorra barkatu ez nizun?*), **azken beltza**, **azken beltzera joan**, hondatu adierarekin (*Unelakoak maiz gosea etxean, eta beti azken beltza*), **boz lodikoa** (*eztarri beltz*), **liberalak** (*Adiskide*

zulako, ez bestegatik il omen zuten **beltzak** Mugertza –Santa-Cruz-ek adiskide zulako–)...

GORRI

Hiru hauetariko aberatsena hauxe dugu, bai alderdi kromatikoari begira bai beste adierei ere. Erdarazko **rojo, rouge, red** eremuan egoki kokatuta, honen inguruko ñabardura eta antzeko koloreak (*bermejo, púrpura, bermellón, escarlata, carmín, granate, carmesí, cobrizo...*) arazorik gabe adierazi izan ditu ahalezko aukerez baliatuz: **gorrasta, gorrimin, gorrindol, gorriño, gorrizko, gorrail, gorraire, gorrikara, gorritara, gorrixka, gorrixkara, gorrizta...** amaigabeko posibilitateekin **gorri min, gorri bizi, gorri jana, gorri samin...**

Egoera baten adierazle gisa sarri agertzen da gorria, eta horien artean osasuntsuaren irudia emango du aurpegiari lotuta, bai **gorri** hutsaz (*An etorri zirean, atso-agure bi, garbi-garbirik burutik oiñetara...* **azal gorri** ederra arpegietan / *Tabernako neskatxa musu-gorriekin eta bide ondoko arbolarekin, argi ibilli*) bai **zuri-gorri** eran ere (*Ene maite pollita, zira xarmagarri: kolore xuri-gorri, arrosa iduri; mundurat jina (etorria) zira ene ihargarri...*). Aurpegiaren gorritasuna agertzea kapilarretan odol jarioak eragiten du eta izan daiteke unekoa, egoera batek –estutasunak, lotsak...– sorturikoa (*Jenteen barreakaz lotsaz gorriturik geratu zan*).

Dena den eta ikusi bezala, oso gertukoa agertu den arrosaz gain horirako saltoa ere erraz egiten du, bai **zuri-gorri** eran (*Mutil gazte zuri-gorri batekin topo egin non «Rubio»*), bai **gorri** eran ere (*Gizon bizar-gorria, andre zanpatzaile*) eta honen harira Pierres Lartzabalen hitzak gogora ditzakegu: «Euskaldunek

“gorri” izendatzen ditugu, berenaz “hori” diren ikusgailu asko: arroltze gorringoa, gure mendietako behi gorriak, napar ardi mutur gorriak, ipar-gizon bilo gorriak» (1975: 402).

Hiztegi kromatiko urria duen euskararekin ez zaigu asko kostatuko lehengo gorria egungoa baino eremu askoz zabalagoan imajinatzea eta arrosa, laranja, horia, marroi, lila, okre eta enparauak bere baitan irudikatzea.

Gehiago ere esan dezakegu: ez genuke ahaztu behar gorria **benetako kolore gisa** ulertua izan dela zuri-beltzaren (argi-iluntasunaren) aurrean. Eta horrela batzuek iradoki dute «gorri kolorea» esatea pleonasmoa dela (Pastoureau / Simonet, 2006: 35). Gazteleraz dagoen hurbiltasuna agerikoa da *color, colorear, colorado enrojecer, rojo...* eta euskaraz dugun hiztegirik zaharrenak hauxe dakar: *Colorado: colore daucana edo gauça gorria* (Landuchio, -1562- 1958: 83).



18

Behi betizu bat elurretan.

Beste kultura batzuetara begirada zuzenduz gero ez da zaila izango antzeko datuak topatzea: «Komantxeen mintzairan *ekapi* berba darabilte “kolore”, “zirkulu” zein “gorri” izendatzeko (...) Zapoteketek *tlapalli* dute “kolore” eta “gorri” adierazteko». (Finlay, 2004: 165 eta 172). Eta beste aldetik, ez soilik koloreari lotua: «Gizonetan lehena ei zen Adanen izenak “gorri” eta “bizidun” esanahiak ditu, eta jatorri eslaviarreko hizkuntzetan “gorri”ri “bizidun” eta “eder” berbak dagozkio». (Brusatin, 1987: 36). Honen harira Moskuko Plaza Gorria ekar daiteke hona, ustezko kromatismoa edota identifikazio politikoaren gainera «enparantza ederra» adierazten baitu.

Gurera itzuliz, **gorritzea**, gorri kolorea hartzea izan daiteke berezko ezaugarri denean (gereziak gorritu), baina bestetan gorritzea ez da hainbeste gorrira joatea, **kolore hartzea** baizik, adibidez fruitua heltzea; oliotan aleak (berakatzarena kasu) hori erre, marroi edo antzekoa hartzen du, hots, gorritu egiten da eta gorripean zer sartzen deneko adibide polita izan daiteke (*Zartagiin olio-baratxuriik erre; alea oliotan gorritu arte*).

Sailkatzeko oso maiz dela erabilia zer esanik ez dago: **abelgorri, gorringo, ardo gorri, urregorri, begigorri** (txanpon), **tabako gorri, elgorri, gorrina, oskorri...**

Baina zinez ugari eta aberatsa beste adieren multzoa da; beste behin ere konnotazio eta beste adieratara saltoa oso erraz egiten dela azpimarratu beharrean gaude: *neskatxa motz eder bat, bere gona gorria goitxo bilduarekin...*; besterik ezean, gona gorria koloreagatik izan daiteke izendatua, bai, baina testuinguruari erreparatu behar ea zama lizuna, sexuaren grina eta halakorik adierazten digun, hain maiz gertatzen den

bezala (Perurena, 1992: 99...); berebat **oilarraren gangarra** edo **oilar gorria** bera, artasunaren ikur gisa erabilia izan da sarri.

Begigorria kasuarekin ere ikus dezakegu nola deskriptibotasunetik edo nolakotasun kromatikoaren gainera (*Kopeta illunakin sudurra zapala du, begi gorriak eta aoa zabal...*) zahartzaro latzaren, larritasunean bizitzearen edota lan gogorraren eragina agerian jarri egiten den (*Zorretan bizitze orrek begi gorriak dizkik neretzat / Olagizonak eta errementariak poltsan diru gutxi eta begiak gorriak / Mamiyak urritzen ari da Udarregi... –Baita Pello Errota-ere begi-gorritzen ...! / Beharrak, begiak gorri*).



19

Oilarraren gangarra edo oilar gorria bera, artasunaren ikur gisa erabilia izan da sarri.

Eta honekin jarraituz, oso erabilia dugu **begigorri mozkorti** adierazteko, nahiz eta gizonezkoentzat adiera hau nagusi den bitartean (hortxe gure Olentzero) emakumezkoengan **sorgin** adiera gailendu (**Andre begigorria**, *sorgin* / **Emazte begigorria**, *belhagile*). **Iseka eta zirikatze** ere erabilia izan da (*Txatar morro*, / **Begigorri**, / *urtien bein etorri*, / *sekula ez etorri*, / **begigorri!**).

Baina murgil gaitezen beste adiera batzuetan, oso hedatuta dugun, **biluztasunarenean** adibidez; gizakiari atxikia aurki dezakegu, bai gorputz osokoa (*Goseak txuti ezin-egonik zeuden*, *erdiak larru gorrian* / **Gorri jaio nintzan ... eta gorri itxuliko** *naiz lurrera*), atal batena (**Oñ-uts gorrian** *ibiltzen ziran* / *Besoak zabaldu ta belaun gorrien gañean jarri naitzazu*, *Jaun aundia!*) edota zehazteke (*Ondo iruditzen al zaizu*, **aragi gorria ageri dutela** *ibiltzea nexka oriek?*), erabilera metaforikoak ahaztu gabe (*Orren asmu-bide guztiak narru gorrien dagoz*). Maiz ere gauzakei atxikia azaltzen da harkaitz, lasto, ohe, lur, harri... eta kasuan kasukoari egokitua; horrela izararik gabekoa izango da ohearen kasuan, zorrotik ateratakoea ezpatarenean eta abar: (*Joan dan arestian emen urr-zaprasta artean argitaratu dituan antxume bizkiak ortxe arkaitz gorrian utzi bear izan ditu*. –Auntzak– / *Oe biguñean jaio ezin zana lasto gorrian ikusi zan* / **Ohe gorrian** *etzana zaukaten* / *Ez dute nahi Elizaren nausitasunik –gure etsaiek–; iduri Eliza gizon itsu edo ezpata gorri bat dela...*).

Soiltasun eta biluztasunarekin estuki lotuta dugu **lurra gorritu**, hots, lurra irauli, goldatu, landare haziak eta belarrak lurperatu, lur soila utziz; garbitu, soildu, biluztu, ihartu... kasu honi dagozkion aditzak dira (*Urtero gorritzen zaie lurra sagarr-arbolai* / **Mendi**

gorri aiek burniz *urratu dituzte* : *izerdiz aña odolez intzatuak dirudite* / *Bi anaiak laixter-bide batetik aldapan gora asi ziran...* *Betiko baztar batean bidea gorritua*, *uraldeak arrotu zulako* / **Mendiak gorri?** ... *Ez ogi ta ez bizi* / *Etorri ziran larrapotiak eta ango larratza gorri utzi zuten*).

Adiera honekin biziki erlazonaturik dugu **gorri gelditu** > ezer gabe gelditu / **gorri geratu** > beharrean geratu: *Okerrena*, *berriz*, *laugarrena jaio ondoren*, *beren amona il zitzaizela*, *orduak geratu giñan gorri*, *orduak*. Gorria muturrera eramandakoa izan daiteke hurrengo, beste ezeren beharrik ez eta bere horretan azaltzea, baieztapen sendoa erakutsiz, **soila**, **purua**, **hutsa**, **muturrekoa**... esanahiak nagusituz; horrela **galgorria** izango da garia jo ondoren larrinean gelditzen den gari-alea edo **alfer gorri bizi** > muturreko alferkeria, **zin gorria emanarazi** zeharo nekarazi adierarekin edo **Erritar gorri** *izatea bear-bearreko da*, herritar petoa.

Oinari gorri hitza atxikiz biluztasuna adierazteko erabili izan dugu, baina oraingo honako hauek **hanka-gorri**, **orpo-gorri**, **mutil-gorri**, **xango-gorri**... haurtxoei aplikatzen zaie: *Ama gazte bat azaldu zitzaigun bere orpo-gorria besoetan zuala* / *Guzurra dirudisku iru arrabete eztauken orrelako ume-gorrieri ainbeste gauza irakatsi leikeola* / **Anka-gorririk** *izan al dozue etxean?* / **Mutil gorriska**: *ez aiz leporaiño!* (*nerekin neurtzeko*); *damutzen bazaik esak: beta duk oraiño*.

Oso hedatuta dago **kale gorria**, kale erdian, babesik gabeko egoeran izatea adieraziz, baita egoera latza bizi, miseria gorrian egotea, baliabiderik gabe egotea ere: **Kale gorrian** *gelditu da alargun gaxoa*.... Beste hainbeste dugu **negu gorriarekin**, negu minean, neguaren gogorrean adierazteko *gogor*, *latz*, *bortitz*,

ancker, krudel, gupidagabe... adierak sarri atxikiak: *Artzaia bera-ere poztu da –udaberriaren etorreraz–; berak-ere eraman bai-zitun **negu gorriko** estuasunak.*

Asteko lan egun arruntari atxikia ere erabiliko da sarri **astegun gorria**: *Zer dala-ta **astegun-gorrian** jai?’ / **Aste gorriz** eder; jaiean kakatsu / Orai, non-nahi, **astelegun gorriarekin**, haragia eltzean / Au lotsa! **Egun gorrian** enparantza betean, emetxar bat bezela mokoka!*

Gorriak igaro, ikusi oso zabaldua dagoen lokuzioa da eta estutasunak, larrialdiak, une gogorak, latzak... adierazteko erabiltzen dugu: **Gorriak ikusi** ditut orregatik gaur ametsetan / **Gorri ibili** gara aurtengo neguan / **Gorriak erakutsi** digu –dizkigu– Otsaillak: *otzak eta goseak asko dira illak.* Zorigaitzeko adierarekin oso maiz azalduko da ordu, egun eta abarrekin: *Arren! Erruki zakidaze ta lagundu eidazue **neure ordu gorri ta larri onetan!** / Oitura lotsagarri oiek uzten ez baditugu **egun gorriak** dauzkagu...! / Negu ariña ekarri zigun urte onek, elurterik-gabea; baña ixillik gordeta zeukan geroko **uda gorria...***

Oso berezkoa du gorriak ezaugarriren bat areagotzea gisa honetako adierekin: **oso, guztiz, bizi, txit, arras, arrunt, itzelezko, izugarri, franko...**: **Goiz gorri** zutelarik; **goiz gorria** da oraino. **Berandu gorri** zelarik; **berandu gorria** dugu / **Gorriena** da asarre bizi-bizian datorrela / Erresuma horren esku hartu **nahi gorrian** ziren.

Dena den, **bortitz, biziki anker, gogor, amorratu, basati, odoltsu, handi** eta antzeko adieren inguruan osatutako kopurua ez da nolana hikoia: *Artzai gaizoak **istillu gorri** ikusten du neguetan / Kanpoan xoragarri, etxean **guda gorri** / **Asarre gorria** izan eben gau atan*

*senar-emazteak / **Gose gorria** ikusi ginuen (gerla-ondoko urthetan) / **Barau gorririk** nago... / **Otzak ikaragorrian** zegoan, umea / Aurrerontzean aizeak darabilen ostoaren otsak **izu gorria** emango dizute.*

Oso erabilia ere **bizi, min, larri...** **gorri ibili** (larri ibili) edota **eguraldi gorrien jabe izan** (sufritu) esapideetan ikusten den bezala; adibideak: *Euskara bera ere galtzeko **arriku gorrian** gaudela aitortu beharko / Erresuma horren esku hartu **nahi gorrian** ziren / Jauna: nere morroia etxean dago elbarritua, **oñaze gorritan** / Zortzi lugin orreetarik zazpi **lan gorrietara** bialdu dabez; eta bata askerik itxi / Ontsa begiztatzeko **tirria gorrian** zagon... Beste hainbeste esan dezakegu **premiatzko, berealdiko, sekulako, ezinbesteko...** adierekin ere: *Atsedean **bear gorri-gorrian** nengoen / Esturasun **gorrian** ikusi omen zun bere burua / **Gabezi gorri-gorrian** gelditu diren baztandar gaxoak / **Larri-gorrian** egon ondoan osasun-bide zelaian ikusi dugu...**

Hauen guztien ildotik muturrera eramatekoa denak ezinbestean gorri eskatzen duela ematen du: *Eguzkia bera baño ederrago zàn semetxoaren **azken gorria** entzunakin ezpata batek amaren biotza ebakiko zuala jakitean –nola penaz urtuko zan Maria!–. Azkuerengandik edanda, Koldo Izagirrek (1981) **azkeneko mamu gorria** azaltzen digu «ezgai» adierarekin.*

Oraindik agortuko ez ditugun kasuen artean honakoak: **sardina multzoa** (*Gure arrantzaleok **gorrira** baizen azkar eztira joaten txarteletara, elizako ezkillatxoak dilin-dilin luzarokoan dei egiñ-arren*), orban beltzez jantzitako gorpuzt arredun **sugegorria** (*Korapillotik askatu-ala asia da **sugegorria** luzaketan*); **langile gorri** langile hutsa, saiatua, handia, porrokatua; **haize, ipar gorri** (*Artoak nekez erein ziran; ta lurra sasoi txarrean; **aize-***



20

Orban beltzez jantzitako gorputz arredun sugedorria.

gorritan nekez jaio ta ezin sartu indarrean / Zorigaiztoko **ipar gorri** onen mendean otz eta legor izan da uda guzia...: nekazarioi ekarri digu urte bateko gosea...); **hitz gorri** (Dagoneko **itz gorri** oietakoak botatzen ikasi du umekondo orrek / **Gorrian hasi**: biraoka hasi); **komunista** (Gure **deputatu gorriak** ez daude naski gogoia **salduri**'k); **deabrua/k**, galtzagorri, prakagorri, kapa-gorri... (Ez ote da **Praka-gorri**-ren lana izan ori? / **Gaua etorrita**, **Mari-Urraka** eskaratzean egoala tximiniatik jatzi zirean **ximelgorriak**); **izaki gaizto**, **anker** (**Pizti gorri** guziak aidatu bear dituzu! / Anaiak dozuz gizon guztiak: **onak eta gorriak**)...

Eta oraindik ere gorriaren presentzia ugari dugu izen-abizenetan (**Perugorria**, **Gorriarena**, **Gorritxepe**, **Gorridi**, **Gorrigaray**, **Gorriola**, **Gorritxategi**...), izengoitietan (Huitzarrei esanda: **Tximisten «bartan-gorri»!** *Legea nola daiten ez orain ardura. Lengoak balio dik gaur giñun jokura!*), toponimoetan (**Iturrigorri**, **Larragorri**, **Txagorritxu**,

Arrigorrista, **Bidegorrieta**, **Txagadigorri**...), hotsetan (**Arraio gorrie!** ... oraingoetan esan leike denak gure kontra **altxa direla**)...; inondik ere sakontzeko aukerak, alajaina!

3.4. URDIN, HORI KASUAK

Jatorri euskalduna izanik hemen kokatuta daude «funtsezko koloreak» ei diren bi hauek (teoria kromatikoaren ikuspuntutik); hala ere, maila oso ezberdinetan aurkitzen dira bata zein bestea (eta euskal ikuspuntutik kolore funtsezkoak direla esateko oinarririk ez).

URDIN

Urdin zaharra ez da inondik inora oinarritzko kolore zehatza, egun nagusiki **azul**, **blue**, **bleu**arekin identifikatutakoa: alde kromatiko zehatz hori gailendu baldin bada, azken urteotako kontua delakoan nago

eta honen parekotasun-eza agerian jarria izan da behin baino gehiagotan: «Urdin hori zer den ez dugu ongi jakiten. Nik Arantzazuko baserritar zahar bati (Ladislao Odriozola) galdetu nion ea zer zen *urdin*. Eta erantzun zidan: “Urdin da zuri nahastua”» (Villasante, 1989: 76).

Arestian globalizazioa fenomeno orokortzat jo dugu Euskal Herriko testuinguru osorako. Horretaz gain «globalizazio txikiez» ere hitz egin daiteke: zonalde bateko erabilerak, modak edo mass-mediaren eraginak azal dezakete gurean halako prozesuak nagusitzea.

Jatorriari erreparatuz gero (ur-din: uraren tankerakoa) izaera kromatiko defnigaitza agerian gelditzen da eta izatez, hitz honek duen ezaugarria tartekoa izatea da, nahasia, zabalera semantiko handikoa. Maila kromatikoan aipa daitezkeen adierak ekar ditzagun:

Azul:

Hasierako «azulino», «azulado» –eta mendebaldeko eskema nagusira makurtzeak (konplexuak jota, homologazio beharra?) ekarri digu egun gailendutako adiera borobil hau. Joseba Sarrionandiak egoki deskribatzen du hau: «gipuzkeraz “urdina” esaten bada ere ez da erdarazko *azul* edo *bleu* hitzen itzulpen hutsa besterik, bizkaieraz “azula” esaten dugu eta ifar aldean, Zuberoa aldean behintzat, “blua”. Bizkaieraz “urdina” diogunean azul zuritza edo gristatuentzat, edo grisentzat da» (1985: 84).

Gris:

Hedatuenetarikoa dugu bereziki ileari atxikitutako «gris», «cano», «plateado»... Abereei ere sarri egokitu zaie eta Azkuek (1969) aipatzen duen ardien kasuz gain («ilea erdia zuri ta erdia beltz dizie»), egun ere edadetutako baserritarren ahotik behi, asto, ahuntz... urdinak maiz



21



22

azaltzen dira. Landuchioren hiztegian ere horrela dugu «Barba cana = vicarrurdina; cana cosa = gauça vrdina» (1958: 69 eta 78).

Pardo:

Ezin ahaztu grekozko «párdos» eta latinezko «pardus»etik sortutako hau galizismo berantiar den marroiarekin bigarren mailan baztertuta gelditu zela. Landuchioren hiztegian adiera hau azaltzen da: «Pardo color = colore vrdina / pardo animal = abere vrdina» (Ibid.: 167) eta

erabilera honen testigantzak 1989anere jasoak izan ziren Aramaion (Preciado, 1992).

Berde:

Agian norbait harrituko da adiera honekin, baina «azul» eta honen arteko hurbiltasuna (eta nahasmena) agerian jarria izan da sarri askotan: «Hizkuntza tartariar eta finlandiarretan urdina askotan berdearen eta grisaren pareko da. Ohar bera egin ahal da euskararen kasuan» (Magnus, 1877: 69); honen adibiderik beste kultura batzuetan ere aurki dezakegu, esaterako arestian aipatutako gaeleraren *glas* hitza, berde, urdin eta grisa batzen dituen (Hudson, 1981: 98). Guretzat, mendebaldeko hiritarrentzat, muturreko kasuak ez izanez gero, inongo arazorik ez dago kategoria hauek bereizteko, baina hauen arteko nahasmena sarri izan den fenomeno da. Hainbat kulturatako kolore-



23

Fruta urdinduta.

hiztegiaren bilakaeran, era berezi batez urdin eta berdearen arteko nahasmenen adibide ugari aurki dezakegu (Berlin & Kay, 1969: 144). Geurean ere arto, ogi eta abarrek... urdintzean hartzen duten kolorea ez al da berdexka, gris antzera, zurixka? Horrela dugu adiera hau: «fruitu, labore eta beste gai organikoen azalean agertzen den onddo berde-urdinxka txiki-txikia» (Bostak bat, 1986).

Zuri:

Azalari atxikitutako *zuri* eta antzerakoan dugu honako esanahia («larruazal zurikoa»), besteak beste, sinonimo hauekin: «larruazal leun, ezti eta gozokoa» edota «ederra»; horrela: «Azal urdiñagoko amen alabarik eztozu zeure bizian ikusi: zanak kontau zekiozan» (Azkue, 1969) eta: «Doña Urdina de Zamalloa y de Lariz, bisabuela del historiador Garibay, quien dice que era “el nombre que mejor daban bien usado en esta tierra”; como lo es actualmente como epíteto de una criatura hermosa: Urdin, urdiña» (Urquijo 1969: 56). Hiztegieta ere ez da faltako adiera hau: «Aurpegiko koloreaz argia dena, beltza edo beltzarana ez dena» (Bostak bat, 1986).

Bistan dago urdin zaharrak adiera ugari har ditzakeela eta testuinguruaren beharra funtsezkoa izango zaigula. Besterik gabe erdarazko «azul»aren baliokide borobil gisa ulertzea murriztapen ikaragarria dela aldarrikatu beharrean gaude. Euskal Herriko zenbait tokitan bereizi egiten dira «urdin» eta «azul» eta bistan da ikuspuntu zabalagoak ulertu behar dela; adibidez, oso maiz agertzen den adiera da lizuntzearena: «Kandelera-biaramoneko ogi bedeinkatua ezta urte guzian urdintzen» (Azkue, 1989, I: 253); Landuchiok ere

jasotzen du adiera hau: «moho de pan = oguien urdina» (1958: 156).

Azken aipamen honen harira ez legoke gaizki gogoratzea Landuchiok «azul»erako ez duela «urdin» erabiltzen, bai, ordea, «azul»: «Azul cosa = gauça azul» (68) eta urdinerako dakartzan adierak dira «cana» (69, 78), «moho» (156) eta «pardo» (167).

Urdinarekin ere aurki dezakegu beste adierarik, nagusiki zuriarekin aipaturako *zaldi*, *mando*... *zuri*, alferkeria, nagikeria adieraziz: *zaldi urdina*, *mando urdinak jo* = nekatu.

Beste aldetik uher, arre, lohi (*Ebite handietan ura urdintzen düzü*, Azkue, 1969) eta zikin adierak ere ager daitezke, zenbaitetan «mariurdin = marizikin» forman. Hala ere, bereizi beharko genuke jatorria noiz den «urdin» eta noiz «urde-din».

HORI

Koloreak izendatzeko hain hiztegi urria duen gure hizkuntzak kategoria kromatiko honetarako ñabardura dezente proposatzen ditu. Horrela egiten du bereizketa Azkuek (1969): «*Hori*: amarillo del canario. *Laru*: amarillo pálido, gualdo. *Beilegi*: amarillo muy vivo / de color vaca». Zinez harritzekoa halako aberastasuna egia izateko. Arratia aldean *beilegi* esaten bada eta Arrasate inguruan *laru*, *horiaren* parekotzat jo beharrean gaude eta ohikoaz gain beste bat azalduz gero, erabilera zehatzetarako izaten da; horixe da hain zuzen, Aramaioko kasua, *laru* nagusi izanda ere *beilegi* («belegixe») ganaduari soilik atxikitzen baitzaio.

Aurrekoekin gertatzen ez den bezala, ez dugu termino bakarra Euskal Herri osorako, sailkapenetan oso gutxi agertzen da, toponimoak ere eskasak dira, esanahia

maila kromatikora mugatzen da... gure historian berri xamarra dela esan daiteke. Egun *hori* da gehien hedatuta dagoena eta zerbait nabarmentzekotan *gorriarekiko* menpekotasuna da, adibide frankotan ikus daitekeenez: *goringoa*, *tabako gorria*, *urregorria*, *ilegorria*... eta hitzaren beraren jatorrian (*gorri* > *gori* > *hori*), azal daitekeen adibidearekin: *labea gori-gori dago*.

3.5. MAILEGUTIK HARTUTAKOAK

Kasurik deigarriena **berdearena** da eta egungo pentsamoldetik ikusita arreta deitzen du. Azkuek (1969) horrela jaso du: «Denen ustean berba arrotza izanik, bitxia da FERDE aldaera baino ez izatea hain kolore arrunta izendatzeko».

Gure moduko testuinguruan, hain hedatua izanda –are gehiago iraganeko garaietan–, halako kategoria kromatikoa izendatzeko jator hitzik ez izatea kezka dutenek badute nora jo (Preciado, 1995a), baina ohartu beharko ginatke lehengo euskaldunentzat hutsuneaz galdetzeak, berez, ez duela zentzurik, egungo mendebaldeko ikuskeratik egindako galdera baita. Eta galdera onartuta ere, «beharririk izan ez dutelako» erantzun simple eta borobilak ez luke inor harritu egin behar, beste kulturetara begiratzea nahikoa izango baita gu ez garela –inondik inora– bakarrak honetan.

Hala ere, auzi hau oihartzun handikoa izan da eta «hutsune» hau konpontzeko hainbat saio burutuak izan dira. Ezagunena **orlegiarena** da, ageriko neologismoa: «*tiré de “orri”, feuille d’arbre, et “-legi”, par analogie avec “beilegi”*» (Txillardegui, 1975: 232). Baina besterik ere aipa daiteke: **musker**, garai bateko zenbait literatur



24

Horra non dugun udaberria, bere musker pollitarekin.

egileren artean sarri erabilia, Lizardi, Lauaxeta, Mirande, Orixe... Hona adibideak: *Huna nun dugun udaberria, bere musker pollitarekin!* / *Itsas-urdiñetik zeruarenera zenbat alde dago!... Musker bizitikan musker urdiñera... zenbat areago!* / *Jorrariak gorritu dute musker zegoèn larrea* (Artasoroan).

Dena den, *orlegi* zein *musker* hitz euskaldunak izanda, arazo bera dugu, kontzeptua bera baita mailegatu duguna, kaiku eta abarkak jantzita, erdal «verde» mozorrotu baino ez dugu egin (Txillardegia, 1975: 232).

Beste aldetik, aparteko berezitasunik ez dago, esanahiak oro har alderdi kromatikora mugatzen baitira (kolore-hitz zaharrekin gertatzen ez den bezala) eta izan ditzaketenak jatorrizko hizkuntzari zor diotenak dira, heldu gabeko egoera adieraztearena kasu.

Mailegutik hartutako beste nagusiek (**arrosa, laranja, more, marroi, gris**) ezaugarri berberak dituzte:

adiera kromatikora mugatzen dira, ez dute sustrairik toponimoetan, ez sailkapenetan eta gehienetan jatorri metonimiakoa agerikoa da: arrosa, laranja, more, marroi bera («gaztaina»). Hauen inguruan ez dago asko esaterik: kolorearen adiera modernoa nagusitzeak alde kromatikoa gailentzea ekarri digu eta termino hauek hartzeak jatorrizkoen eremuak murriztea ere; horrela, arrosa, laranja, marroi eta enparauek (okre, karmin...) berezko garrantzia irabazi ahala gorriaren jatorrizko eremua gutxitu egin da.

3.6. GEURE GAINONTZEKOAK

Soilik ikuspuntu kromatikotik begiratuz gero, multzo honetakoak ez dira oso erabiliak eta berezitasunak maiz gertatzen dira; kromatismotik haratagoko esanahiak, aldiz, sarri aurkitzen dira eta testuinguruaren erreferentzia usu izaten da beharrezkoa. Edonola ere, multzo honetakoak funtsezkoak dira euskal ikuskera ulertzeko, kolorearen kutsu moderno, pigmentario, artifizial hori astintzeko eta gure aurrekoek –izadiari begira bizi izandakoak– sentitutakora gerturatzeko.

Erabateko zerrenda ezin zehaztu (batzuk alboan utziz: *dundu, oztin, amusko...*); bai, ordea, garatzekoak diren multzo nagusiak.

3.6.1. Kolorearen gainetikoak

Hemengoak nagusiki bi arrazoiengatik ezaugarritzen dira: alde batetik erreferentzia kromatikoa ez da zehatza, maiz lerrakorra, testuinguruaren beharra agerikoa, nagusiki bereizketa dute helburu deskripzio kromatikoa

baino, tokian tokiko aldaerak...; bestetik, pisu handia dute eremu kromatikotik haragoko adierek eta muga finkatzea ez da batere erraza.

NABAR

Erabilera arruntean sustraiturik aurkitzen dugu; hori bai, testuinguru oso ezberdinetan erabilia eta alderdi kromatikoari helduta ere, esan genezake kasu askotan adiera deskriptiboaren gainetik iradokorra edo sailkatzekoa gailentzen dela. Oso maiz testuinguruaren premia sumatuko dugu adieraz egoki jabetzeko.

Bere zirrikitu ugarietan sartu aurretik, har ditzagun Elhuyar-Elkar hiztegian (1994) agertzen diren adierak:

- «1. Orban ilunak edo arreak dituen; kolore argi eta ilunen nahasturaz osatua, kolore askotakoa
2. Izaera edo alde askotarikoa (...)
3. Arrea, grisa».

Alderdi kromatikoari begira, bi adiera nagusi dira azpimarratzekoak: lehendabizikoa, kolore bakar eta homogeneoen aurrean, **koloreanitz, koloretsu, pinttokari, pikardatu**... agertzen zaigu *nabar*; horrela «Arropa nabar bat, une robe de couleurs variées» dakar *Orotarikoak*. Beste adierak, nagusiki **arrea** eta **grisa** dira, zenbait adibide hemen lerrotatuz: **Nabar-baltzika** = *Pardo oscuro* / *Narru nabarra* = *piel parda*. *Orotarikoak* aipatuta, Luis Mitxelena eta beste dira egileak, 1987an argitaratzen hasi zen hiztegi bikaina: *Orotariko Euskal Hiztegia*.

Dena dela, koloreei ez ezik itxura orokorrari ere ematen zaion garrantzia biziki kontuan hartzeko datua dela ezin ahanzturan utzi. *Nabar* hitza erabilia egoera definikaitz



Gastainak nabartzen ari dira.

25

baten aurrean gaudela esan dezakegu, fenomeno edo gauzakia geure begien aurrean izan gabe ez baita erraza horren esanahiaz zehaztasunez jabetzea, adibideek erakutsi bezala: (*Konexuaren larru*) **horasta** edo **nabarra** (...) *Noizbait orlegi, gaur nabar basoa* = *hoy amarillea* (...) *Zelai nabar-illunean urrezko katu* = *en campo leonado* (*Orotarikoak*).

Nabar honen izaeraz jabetzeko, har dezagun itxuraz kontraesankorra den beste adibide hau: *Gastaiñak nabartzen ari dira*. Mokoroak horrela itzultzen du «Dagoeneko *helduaroaren* kolorea dute»; Azkuek ordea, «Gastainak kolorea galtzen hasiak dira (*heltzen hasiak dira*)» eta *Orotarikoan* «Gris bilakatu, berezko kolorea ilundu, nabarra / kolorea galdu (gastainekin behinik behin).

Elhuyar hiztegiak bere web gunean hauxe du:
zalantzarria: Ambiguo, -a; equívoco, -a; de más de un sentido, eta horrela nabartu-rako: *perder el color* eta adibide gisa: *ilunak nabartu du bideko marka: la oscuridad ha borrado la marca del camino*. Han-hemenka jasotako beste adibideak: *Edúrra nabártuta daó / Edurra nabartu xok = Está casi blanco de nieve, casi ha blanqueado / Erderak arretu ta nabartua zeukan euskera = Enturbiado y bastardeado*.

Bistan da ez dela esanahi bakarrekoa baina kolore aldetik adierak bilatzeko eta, funtsean, argi gehiago egiteko, jo dezagun abere eta animalien arlorra, mota honetakoak sarri aurkitzen baitira; horrela behiekin dugu: *bi behi nabar = deux vaches de couleurs variées / bei nabárrak = las que tienen blanco y negro / nabar-gorriak = las que tienen blanco y rojo / idi nabar = bi kolore arraixekin, gorriska, ilune (...) gorrixe arraixa balzakín*.

Berriro ere aipatu behar da itxura ezberdinak har ditzakeela nabarrak: kolore asko, orban handiak (zuri-beltzak, *pinto* izendapenarekin lehian; zuri-gorriak...), arraia... eta, esperokoa denez, aldaerak eta tokian tokiko erabilerak: *beltz-nabar, zuri-nabar, nabar-beltz, nabar-gorri...*

Behi eta idiez gain, katu, oilo, arkume... baserrian, baita suge, miru, sai, igel, orkatz... eta -harantzago joz- lehoiabarra, itsas lehoi nabarra, tigre, zebra eta abarrekin sorta adierazgarriak ditugu: *Arkume nabarrak askoz-ere geiago ziran zuri uts edo beltz utsak baño, urrengo ume-aldian / Lenago katamotzak utziko ditu bere nabardurak oek alferkeria utziko duen baño / Zebrak ikusi ebazanean Jonandon-ek antxe gelditu zan eurei begira adi-adi, urteteko ordura arte. Bai zorrotz begitu berak asto nabar areei!...*

Eta tantak baino titak azaltzen dituen nabarrarekin ere ezaugarri daiteke, kasu hauetan pikardatuak eta enparauak (*pinkardatua, pikarta, pikotatua, pintokari...*) gogora etortzen bazaizkigu ere; «Gure oilotxo nabarra» abestia dugu adibide (aldaerak tartean «neure oilanda nabarra») edo «Oiloa galdu» izenekoak: *Oiloa galdu zaio / Mari Mondongori, / señaileak baditu, / bila al baledi: / buztana du nabarra / mokoia beilegi / aren arrautxatxoak / arila dirudi*.

Begia ere sarri izan da ezaugarritua nabarrekin eta Iparraldeko abestietatik hartutakoak dira adibide hauek: *Neskatila eijerra, oi begi nabarra / Uso paloma xuri, oi begi nabarra / ¡oi! ene maitea: nabarra begia / Bilho holti, larru xuri eta begi nabarra / Begia düzü nabarra churi gorri larrea / zorabio batetan nahasten direlarik begi hain nabarrak...*

Hala ere, esanahi garbia dugu hauetarako? Erdarazko baliokideak bilatu izan direnen artean aurki ditzakegu «castaños, pardos, abigarrados, garzos...»; gogoratu «garzo» urdinxka dela, batera datorrena *Orotarikoak* Gernika-Bermeon kokatutako honekin: «**Begiak nabarrak: los ojos azules**». Edozein modutan, aurreko adibideetan laudorioak dira begiei zuzendutakoak, edertasun-ikurrak nolabait; ez da gauza bera gertatzen atsotitz honekin: *Xuberotarra begi-nabarra, lasto-motho batez erre beharra*.

Batzuetan alde kromatikotik haratago joaten direnak aurkituko ditugu: *Neskatila nabartoak Madozkoak* (ausartatxoak). Eta soka honi tenk eginez, Mokoroak bildutako adibide sorta hau, itzulpena bere horretan utzita: *Ez dago itz nabarmen orietan erlijioaren izpirik > En esas atrevidas palabras / Karta bat Bilbo-ra eskribietako gauz ez... ta feriodikoetan baztarrak*

endredau!... Nabar ori! Olango nabar ori, oindo!
 –(diñost ixildu-barik atsoak barruen arrapetan nabenean...
*Nik ekarri deusat lorra neure buruari!... = Indecente...
 más que indecente!... / Nabarmenketan jardun dira*
 = *En conversación equívoca; con palabras de doble sentido*
 (lascivo) / *Ez egin lekhurik guthizia nabarr horiei!* =
No consintáis en esos deseos impuros / Eskekoen aoa sarritan
izan doia esker-gaiztokoa eta nabarmena = Lengua
desagradecida y desenvuelta / Gizon nabarra da... =
Hombre de varias caras... (pérfido, engañoso).

Bestalde, badugu nabarrarekin zuri zein urdinarekin ikusitako adiera interesgarria: *alferkeria, nagikeria, zabarkeria, mandrainkeria* eta gisakoak: *Aho-zabalka ari denak, zakur nabarra* = «el que anda bostezando, pereza tiene» / *Alferrak beti zakur nabarra ingurun >* «el vago siempre la galbana al lado» / *Zakur nabarra leporaino iganik (igorik) du* = «está dominado por la galbana...»

Dena den eta hasierako adieratara itzuliz, *nabar* kasurako azpimarratu beharrekoa dugu *izaera edo alde askotarikoa*. Beste inoiz baino agerikoagoa da izaera askotarikoa izateak zalantzarria izatea dakarrela, itxura ezberdinen artekotasan horretan ibiltzea, hitz batez, definikaitz izatea, animaliekin sarri gertatzen den bezala. Ez da harritzekoa beraz, kolorea ez azaltzea era garbi eta definituan, aldiz, «enturbiado, mezclado, bastardeado»... izango dira erdarazko baliokideak eta ez soilik eremu kromatikoan aplikatua: *Edanda daudenean zuria nabar iduritzen zate; guziak beren kontra daraustela. / Ikusten danez odola ez-eze, berbetea-be ondo nabarra edo nastua daukee gure auzokuok.*

Euskal jator hitzen artean sarri konturatuko gara mugaz gaindiko polisemia doakiela hauei; *nabar* hitza

adibidea dugu eta bere egiazko esanahiaz jabetzeko, testuinguruaren premia (behin eta berriz) aldarrikatu beharrean gaude.

UBEL

Nagusiki gure artean «larruazalean kolpe baten, hotz handiaren, etab.en ondorioz sortzen den kolore iluneko gunea» izendatzeko erabiltzen dugu (Elhuyar-Elkar, 1994), adibideek erakutsi bezala: *ubela duzu besoan / ubelez eta kolpe txarrez josirik zaude... / ubel-ubel eginda bialduko ditut, berriz etortzen badira.*

Hala ere, eremu irristakorretik ibili beharko dugu oraingoan ere, beste multzo bat identifika baitezakegu Orotarikoak dakartzan adiera hauen inguruan: *pálido,*



Ilargiaren argi ubela.

amarillento, blanquizo, blanco mortecino, (cara de) gualda, pajizo, pajada, color de paja, descolorido, macilento, perder el color... eta adibidetzeko honakoak aipa daitezke: *Atorra xuri izanik han hemenka ubeldua* = «Siendo la camisa blanca, tiene zonas amarillentas» / *Illargiaren argi ubela* odoi beltz batek itzalirik lenaz bezela illunpean gelditu ziran = «La pálida o mortecina luz de la luna» / *Jan-gabez, gañerakoak baño ubeltxeago bazeuden* Erregeak ari nozierako zion = «Más macilento que los demás».

Dena den, kolore galtzea nabarmentzen dela irudituta ere (*ubeltasun: lividez, palidez*), itxuraz kontrako norabidea hartzen duten beste batzuk ere baditugu: «*parduzko, moreno, oscuro*»...: *ogi hau, zekalea nahastean duelako, ubel irten da* = «este pan, porque está mezclado de centeno, ha salido muy moreno» (Bostak bat, 1986).

Eta eguraldiari atxikia: «gris, plomizo, sombrío»: *zerua ubeldu zen ekaitzaren hariatz*. Zer esanik ez dago beste eremutan antzera erabil daitekeela: *Ibaia ubeldeturik, zikin-zikin zetorren...*, *bazterrak azpitik sakondu ta errekatzen zituela*.

ARRE

Bi adiera nagusi (Elhuyar-Elkar, 1994):

- Lur-kolore ilunaz esaten da: *hartz arre bat*.
- Fluidoez, bereziki uraz, berezko gardentasuna ez duena, lohitasun ugari duena: *Ez du atertzen eta ibaia arre dator*

Azken honi helduta eta kutsu nahasi horrekin, sarri agertzen da kolore arrea, oso garbi 'ur arrea' kasuan: euriteen ondorioz, euri truxu egin eta gero, sortzen den ur-emaria ur nahasi arrea izaten da, errekatan azalduz baita itsasoraino iritsi ere. Ezagutzen dugun espapidea

hemen kokatzen da: *Ur arrean arrantza egitia*. Eta lokuzio bat bil dezakegu hona: *Kupela ur arrearekin bete* > tranpa egitea adieraziz.

Baina kolore adierara itzuliz, eremu irristakorrean gaudela bistan dago: *nabar, gris* edota *beltzixkarekin* lotua agertzen da sinonimo gisa eta erdarazko adiera nagusiak «pardo» eta «gris» izanda (Azkue, 1969), «ocre», «grisáceo», «cenizo» eta antzekoak ere azal daitezke honetarako. Nagusiki «pardo» bada baliokidea, «gris» zein gertu dagoen honako adibideak erakusten digu, kanta baten bi bertsio ekarriz: *Ûrzo luma arre gaixoa, nire txangotan baho...* / *Ûrzo lüma gris gachua* / *Urzo luma gris gaicho...*

Zenbait abere eta animalia kromatikoki ezaugarritzeko erabili izan da kategoria hau gurean: sai arre, behi arre, hartz arre... baita itxura kromatikoaren deskribapenetan ere, txolarrea kasu: «...tamaina txikikoak dira eta lumaje arrea eta moko sendoa dute» (Elhuyar-Ekar, 1994), Lizardiren adibide honekin baieztatuta: *Parisko txolarrea: / zertan aiz berezi / nere erriko batez? / Azalez, soin-arrea: / barrenez, biurri*.

Dena den, labaindu egiten den adiera kromatiko da hau: horrela, Pirineotako *hartz arrea* dugu erdarazko «oso pardo», baina «leopardo» aldiz nagusiki *lehoinabar* izaten da izendatua. Nabarra ere erabili dugu tigrerako, katamotzerako, baina «Tigre, *katamotza, arrea*» topa dezakegu *Orotarikoan*. *Ur arre* aipatzen ari gara eta *Ibaia ubeldeturik* ikusi dugu aurrekoan, baita *zerua ubeltzen* eta orain arretu ere: *Odei pillo arreak dabiltzaz batuten / Oldarrean doaz odei arreak sartalderuntz betiko / Odi baltz arre, ur loiaren kolorekoz bete zan zeru ingurua / Goiz arre ta baltzeran aretan joan zan joan...* /

*Aldaizearen etorrerea, **kolore arrea** (euri kolore zuela adierazi nahi zen, noski)...*

Kolore galtzea nabarrekin ikusi dugu eta *Orotarikoan* dugu «*İnoiz baltzak ixandako praka **arreak** (pardoak)» kasua. Iturri berean «**Arre, arria**, color mezcla de blanco y negro (en animales); turbia (en el agua)» eta urarena erraz ikusten badugu animaliekin erabilitakoak *nabar* zein *urdin* ekartzen digu gogora, «*Ardi arria, ni blanca ni negra: urdina*». Labainkortasuna eta testuinguruaren beharra, beste behin, agerian.*

UHER

Nahasi da ezaugarria, eta ez du harremanik kolore jakinekin; bai, ordea, aurretik aipatutako eta definitzen zailak diren kasuekin, modu berezian *arre* kolorearekin. Horrela dakar Elhuyar-Elkar hiztegiak (1994): «1. Bere barnean zatiki solidoak dituelako *arre* agertzen den likidoaz esaten da. 2. Garbia ez dena». Forma ezberdinak hartzen ditu (*uger, uber, uar, uhar, ugar...*) eta esanahia lohi, lohitasunarekin lotua da batik bat, arrearekiko hurbiltasuna agerian jarritz, haren aldaera ez ote den galdetzeraino: *arrantzaleak ur **uherra** nahi izaten du arraina atzemateko*.

Bistan da, oraingo honetan ere, ez garela adiera kromatiko zehatza duen hitzaren inguruan ari eta nahasi ezaugarri honekin *Orotarikoan* bildutakoak ez dira gutxi; **gris** da nagusi eta adibide sorta horren inguruan: *Galtzerdi **uherrak**, bas gris (...)* Astoak dira beltzak, xuriak, gorriak bakhanki, maizenik **uherrak** / Asto beltz edo **uherrak** (...) Gorputz guztia lohi-kolore, mihia beltz eta begiak hits, **uher** eta ezin-erranezko basakeriaz *distirant*. Baina honez gain **pardo, marrón** ere azaltzen

da **Uger-kolore**. *De color pardo / Uharra, brun tirant sur le roux, bai* eta bitxikeriatzat jo badaiteke ere, hauek ere: **Uber**, *blanquecino o blanquizco (...)* **Uger**, *azul muy oscuro* (Orotarikoak). Elhuyar hiztegiak beste kasu hau dakar: **Zaldi uherra** = *caballo bayo* eta kontutan hartzekoa da kolore hau «zuri-hori» bezala ulertzen dela.

Bidenabar, *Bizikleta **ugerrak** jana du / Aizkora **ugertu** zai*o moduko adibideek agerian uzten dute burdin eta altzairuen gainazalean (edota landareen zurtoin eta hostoetan) ateratzen zaizkien herdoil-orbanak izendatzeko balio dezakeela.

Erraz aurki daitezke alderdi kromatikoetik haragokoak eta atsotitz baten harira –*Gaina eder, barren **uher**–gogora dezakegu aldaera –Sagar gorri(a)k barrena ustel– eta besteei bidea eman: *Hire etsai **bihotz-uherrak** / Gaitzesten duzu bere **borondate uherragatik** / Omen**



Autoa ugerrak jana du.

27

ona **uhertu** («manchar la buena reputación») / *Zergatik uhertu zara?* («¿por qué te has irritado?») / *Asmo uherrak* («turbias intenciones»).

3.6.2. Kolorea baino haren falta

Multzo honetakoak bat datoz –eta hori ezaugarria– kolore galtzearen egoera seinatatzean; izan ere, *kolorge egotea, bizitasunik ez agertzea, toil, zurpail, larruazalak ohi duen kolorea galdu edo kendu* dira **hits, beluri, margul** eta **zurbil** hitzen adierak, honako adibideak, hurrenez hurren, agerian jartzen duten bezala: *Kolore bizienak histen dira eguzkitan / Eguzkia beluritu zaigu / Begi margulak dauzkazu beti! / Begitarte zurbila.*

Adiera hauekin batera ez da zaila kromatikotik haratagokoetan (*triste, goibel, betilun, gogoilun, atsekabetsu, nahigabetsu...*) kokatzen direnak aurkitzea: *Hitza hitz, bestela gizona hits / Gu bizi garen denbora hits honetan / Edari hitsak / Betazalak eroriak, begia hits / Berri hitsa...*

3.6.3. Erabilera zehatzak (nagusiki abereekin)

Multzo honetakoak abereen artean aurkitzen ditugu nagusiki; egon badaude, beltz, zuri, gorri, urdin, arre... baina oso maiz agertzen dira kolore askotakoak, orbandunak, titadunak, pintodunak, arraiadunak... eta kasu hauetarako beste honako izendapenak dagozkie. Erabilienak: **pinto** (ongi mugatutako orbanak, tita txikiak baino handiagoak: *zakur gogorra izango bada, aho sabaia pintoa behar du*), **pikart** (titak dituenari esaten zaio, kolore askotakoa; *katu pikarta* izango da kolore astotakoa; *Eguzkiak pikardatu dio aurpegia*),

mazkaro (mutur beltzekoari deitua, nagusiki behi-aziendari atxikia), **izpil** (Berdintsu irudituta ere, halako kolore nagusi baten gainean kolore ezberdineko titak edo zatitxoak agertzea da ezaugarria: *Gure edesti aintzalgarriaren orrialde txuri batzuk izpil beltzaz zikindu*), **belio** (behi edota idiei atxikia).

Ez bakarrik hauekin, baina bai bereziki hauekin kontutan hartu egin behar tokian tokiko erabilerak sarri jaso direla, zerrenda honi beste batzuk gehituz (**orizto, orin, lista...**), aldaerak (**pintokari, pintarna, pintarnadura, pikarda, mazkara, maxkaro...**) eta, oro har, izendapen ezberdinak; adibidez, **pinto** izan daiteke hedatuenetarikoa eta orban handi horiek zuri-beltzak ohikoak badira, ezin ahaztu zuri-gorriak ere izan daitezkeela; hortik **nabar-gorri, nabar-zuri...**

4. IKUSPEGI OSATUA

«Aurrera egin duten herrien kasuan, nazioarteko sailkapenak herriotakookin batera bizi dira, eta batzuetan gainjartzea ere lortu dute, edozein kultur mailatan: gure kasuan hor da espektroaren koloreena» (Mitxelena, 1985: 168). Aipamen honen haritik uler daiteke mendebaldeko eskema nagusia gailentzea, baita beste erabilera batzuek bizirik irautea ere.

4.1. EGOKI ULERTZEKO GAKOAK

Kolorez kolore egindako ibilbidea beti herren geldituko da ez bagara saiatzen gure aurrekoen tokian jartzen eta euren ikuskeratik fenomeno hau ulertzen.

Mendebaldeko eskema nagusia bazter lagata, zenbait gako agerian jartzeak –zertzelada gisa– lagun diezaguke hobetu ulertzen gure ikuskera zertan datzan.

A) Euskaldunok kolorerik ez

Koloreaz hitz egiteko, beste behin ere, maileguaz baliatzen gara; eta gakoa ez da hitza mailegatzea, kontzeptua bera baizik. Berdearen «hutsuneaz» esandakoa gogora etortzen da «margo» eta «kara» hitzekin (Preciado, 1996). Agerikoa denez kolorearen kontzeptualizazioak abstrakzioa suposatzen du eta euskaldunontzat era sinplean esan daiteke –erlatiboki– berria dela, beste kulturetako eragileak bultzaturik sorturikoa dela eta garapen historikoan beste eragileei lotua azaltzen dela (tindagaien aurkikuntzak, kasu).

Beste giza taldeetan gertatu bezala, itxura orokorrari garrantzi handiagoa eman izan zaio berezko alderdi kromatikoari baino. *Kolore ederreko gizona, sagarra, eguraldia* eta holakoek itxura orokorrari egiten diote erreferentzia, halako irudia iradoki egiten dute zehaztasun kromatikoaren gainetik.

B) Dimentsio modernoa

Beste kultura batzuetara begiratzuz gero adibiderik ez zaigu faltako koloreak bilakaera historikoaren arabera ulertu behar direla ikusteko: «*Chloron* (...) aspaldian emandako esanahi semantikoak, koloreari barik honako adjektiboei lotua ageri ziren: “zurbil”, “argi”, “fresko”, “heze”». (Gage, 1993: 272).

Geure kolore-hitz zaharrekin ikusi dugun bezala, hauek berez kromatikoak diren esanahiak baino haragokoak dira gehienak, eremu sinbolikoa barne; egun, aldiz,

arlo kromatiko gailenduta agertzen da eta hitz hauek kolorearekin bakarrik identifikatzea erreduktionismo ikaragarria da, mundu garatuaren ikuskera nagusiaren morroi dena.

C) Garrantzia. Gizonezko-emakumezkoak koloreen aurrean

Esan daiteke kolorea ez dela interes berezirik sortzen duen gaia (behinik behin eremu zehatz batean aritzen ez bagara: ehungintza, inprimatzea e.a.); bizitza arruntean gutxitan izaten da garrantzitsua eta kasu gehienetan, ez da gauzak bereizteko edo ezagutarazteko erabiltzen den kategoria bakarra; beste batzuk, aldiz, (forma, tamaina, erabilgarritasuna, ehundura...) egokiagoak eta erabilgarriagoak izaten dira. Sarri kolorea ez beste ezaugarri batzuk darabiltzagu bereizketak egiteko, edo koloreekin batera ekartzen ditugu aditzera.

Gainera, sexu aldagaiarekin duen zerikusia ezin bazterrean utzi, ohikoa baita emakumezkoen eremukoa dela kontsideratzea: arropa kontuak, loreak... eta bide beretik doaz itxarobide sozialak, kulturalak (Stöetzel, 1982: 105; Gumperz eta Bennett, 1981: 101). Rudolf Arnhem-ek (1981: 369-371) agerian uzten du ohikoa izan dela kolorea emakumezkoen gaitzat jotzea eta, emozioei lotuz, emetasunarekin identifikatzea (eta aldi berean, forma artasunarekin, adimenaren kontrolari lotuz).

D) Anbiguotasuna, testuinguruaren beharra

Kolore izenek abstrakzio baten berri ematen dute berez eta inoiz ezin gara ziur egon halako kolore adierazpen baten aurrean jasotzaileak esanahi bera ematen dion. Kolorearen izaerarekin batera izendapenen

arbitrariotasuna, modak, lokalismoak eta abar azaltzen dira: aurrean eduki ezean zaila da kolore zehatzak imajinatzea.

Adibideak erruz topa ditzakegu: oro har, gorri bizi bezala ulertu egiten dugu *eskarlata* baina «Halako ehunak ez ziren beti gorriak, izan ere Erdi Aroan badira eskarlata-oihal zuri, bioleta, berdeak, eta bai more eta beltzak ere» (Espejo, 1996: 498). Beste bat?: «purpura, bioletara egiten duen gorria» (Ibid: 504), baina tonalitate askotakoa izan daiteke: hori, gorri, berde... eta are gehiago: «Goiz Erdi Aroko mendebaldean purpurak tonalitatea izendatzeaz bestera, zetazko oihalak ukitzea ezaugarritzeko erabili ohi zen adjektiboa zen, edozein koloretakoak izanda ere, baita zuria edo berdea ere» (Gage, 1993: 27).

Gogoratu besterik ez dugu egin behar *ubel*, *nabar*, *arre*... eta abarren esanahiaz egoki jabetzeko testuinguruaren premiazko beharra kasu gehienetan.

E) Natura - artifizialtasuna

Maiz ez bagara ohartzen ere, lehenengo euskaldunen kolore ikuskeraz jabetu nahi izanez gero, funtsezko bereizketa hau ezin bazterrean utzi: nekazaritzan, arrantzan eta, oro har, naturan bertan murgildurik jarduteko bizimoduak nagusi diren gizataldean azaltzen diren koloreak eta, bestetik, (pigmentu eta tindagaiak oro erabiliz) artifizialki sorturikoen artean egiten dena. Azken hauek jantziek har ditzaketen koloreak edota inguruko gauzak (ateak, leihoak, hormak, lorontziak, autoak...) pintatzeko erabiltzen diren margoak dira, hain zuzen artifizialtasun ezaugarria dutenak: sarri homogeneousak, ugaritasun aukera ikaragarria, iraunkorrak...

Bestalde, gogora dezagun naturan agertzen diren gauzak zeintzuk koloreekin ezaugarritzen diren, kontura gaitezen bereziki bizidunengan zer-nolako kolore agertzen diren: urtaro, sasoi, sexu, ingurugiro, baldintza atmosferiko eta begiralearen ikuspuntuaren arabera aldakorrek, gehien-gehienetan ez homogeneousak, tartekoak, zehaztugabeak, nahastutakoak, bat baino gehiago sarri agertuz, ñabardura anitzekoak, argiaren arabera...; oro har, abere lumadun eta ileadunengan oso nabaria izaten da hau, baita beste ezaugarri batzuk ere: gaineke aldetik nabarmenagoa sabel parean baino, argiak jotzen duenaren arabera sortzen diren islak, e.a. Honek, jakina, erlazio zuzena du kolore hauek izendatzeko era berezi horiekin: *nabarra*, *arre*, *beilegi*, *pikart*, e.a.

F) Sailkapen - Deskribapena

Normalean koloreak deskribatzeko beharrik ez da izaten. Egoerak beharturik edo, koloreen deskribapena egin nahi denean ere, hau hurbilpena baino ez da izaten, txikigarriak eta atzizkiak maiz erabiliz; horrela, egur-moten kolorea aditzera eman nahian agertzen direnak: «pardo grisáceo, pardo cobrizo, pardo rojizo, pardo tabaco, gris rosado, rosa pardo, amarillo aceitunado, violáceo, beige rosado...» (Gran Larousse Universal, 1990). Euskaraz ere begi-bistakoa da holakoetan «-aren antza», «-zta», «-xka»... motako atzizkiak zein maiz agertzen diren eta baita nola kolore nagusiari (nahikoa adierazten ez duelakoan), kasu gehien-gehienetan, izenlagun bat jartzen zaion. Honekin batera kontuan hartzekoa, oinarrizko koloreez gain, zein sarri agertzen diren mailegutik hartutako besteak (*beige*, *crema*, *cobre*...).



28

Ardo zuria ez da zuri-zuria.

Dena den (eta ia ez bagara jabetzen ere), kasu gehienetan koloreak erabiltzea funtzio zehatz baten menpean gelditzen da, sailkatzearena alegia; eta kasu hauetarako kolore-hitz gutxirekin nahikoa dugu, hots: *zuri, gorri, beltz* eta neurri apalagoetan *nabar, urdin...* Ardoarekin ederki ikus daiteke hau: zuri, beltza eta gorri ditugu, baina zuria ez da zuri-zuria (horixkatik berde antzeraino), beltza beltza ere ez, ezta gorria gorria ere: «ardoaz mintzatuz, beltzaren eta zuriaren arteko kolorea duena» (Elhuyar-Elkar, 1994). Adibideak adibide, ez gara maila deskriptiboan aritzen eta hala ere, elkarri ongi ulertzen diogu.

Sailkatze horren deskribapena egiterakoan bien arteko aldea argi gelditzen da; esaterako: «*ziza-zuri (hydnum repandum)*, descripción: color blanquecino, crema o crema rosáceo, en ocasiones marrón rojizo; coloración: rosáceo o cárneo; *urbeltz (coprinus comatus)*, desc.: al principio ocrácea... luego blanca; los bordes se transforman en líquido negro; col.: blanco o crema y

negro o grisáceo; *gibelurdin (russula virescens)*, desc.: gorro verde...» (García Bona, 1980: 31, 119 eta 135).

G) Balore sinbolikoak atxikiak

Koloreen dimentsio sinbolikoa ezaugarri unibertsaltzat jotzen da; kultura bakoitzak bere balio sinbolikoak ditu, batzuetan batera etorritz beste kulturetakoekin eta zenbaitetan, era kontrajarrian, berezko erabilerak: jadanik ikusi dugu mendebaldean garbitasuna adierazteko zurtasuna erabiltzen dela eta Txinan, aldiz, dolua.



29

Urbeltza (coprinus comatus).

Geurean adibide ugari topa dezakegu: **oilasko lumagorri, oilar gorria**... artasunaren ikurra, **gon gorria** lizunkeriarena, **aker beltza** ukuiluaren babeslea..., **zaldi zuria, zaldi urdina** alferkeria, nagikeria...; atsotitzak iturri oparoak dira holakoetan: **katu beltza** *etxean, txantza (zorte) ona etxean / xoxoak beleari* **ipur-beltz** / beharrak **mutur-beltza** / **praka beltzean ari zuria** / **xuri guztiak** *ez dira irinak, ez beltz guztiak* ikatzak...

Huskeria ere ez da kontutan hartzea adiera sinbolikoa positiboa ala negatiboa izan daitekeela testuinguruaren arabera; ikusi dugunez, **beltzak** *goibel, atsekabetsu, zikin, haserre, zorigaiztoko* adierak baditu, ezin ahaztu *serio, kementsu, zentzuzko*... ere har ditzakeela: *Gizonok oro buru-beltz* (zentzudunak).

Erabilera hauek eremu askotan jaso daitezke, esaterako, gaixotasun batzuk tratatzeko (*eskuko hatzetan zingirio edo erpurukoa* **elorri zuriaren arantzarekin atera, inoiz ez elorri beltzarenarekin**, Barriola, 1979); gizaki eta indar gaiztoen babesa (**Elorri zuri** *bat baratuezkero, iges iten dute sorginak* (Ibid.: 383) eta abar.

Hala ere, gureak direlako ustean bagara ere, badaude testuinguru zehatz batetik sorturikoak; adibidez, kristau kutsua agerikoa da holakoetan: *Tximeleta zuria zerukoa da, beltza inperukoa, gorria purgatorikoa. Tximeleta zuriak Ama Birjinaren berriak ekarten ditu eta ezta il bear. Tximeleta beltzak il egiten ditue.*

H) Errealitatea kromatikoki ezaugarritzeko beharrik?

Ohar gaitezen gauzak kromatikoki ezaugarritzeko beharra erlatiboa dela guztiz; hosto, ziza, egur, abere eta haiei buruz egiten diren deskripzioetan erreparatuz

gero, konturatuko gara sarri askotan beste ezaugarri batzuetatik bereizten direla, erabilera kulturalak (eta banakakoena) asko izanik.

Ehundura, tamaina, pisua, gogortasuna, itxura orokorra... sarri kolorea bera baino erabilgarriagoak eta kromatikoki ezaugarritu nahi izanez gero, maiz ikusiko dugu zein desegokiak diren ohiko koloreak eta erabilera zehatzetara joko dugu. Zezenen kasua adibidetzat jo dezakegu, ohitura handia duen gaztelera erreferentziatzat hartuta, eta ikus dezagun nola batzuetan kolorea ezaugarri izanda («jabonero, barroso, albahío, estornino, cárdeno, jijón, jaro, sardo, berrendo, meano...» –non ohiko koloreak!!!–), bereiztuak ere izaten direla buruan duten ezaugarriengatik («capirote, capuchino, caribello, estrellado, lucero, rebarbo...»), hanketan azaltzen direnengatik («calcetero, botinero...»), zangartasun, suhartasunagatik («abanto, cévido, gazapón, probón, ponto...»), adarragatik («bizco, cornalón, brocho, playero, cubeto...»), adinagatik («añojo, eral, utrero...»), ezaugarri orokorragatik («remendado, chorreado, verdugo, anteado...»), e.a. (Preciado, 1996: 83).

I) Euskara, ahozketasuna

Gure aurrekoen ikuskera nagusiki ahozko tradizioan oinarrituta iritsi zaigu; imajinak, irudiak sortuak izan dira –halabeharrezko testuinguruan– hitzen bitartez. Hizkuntza zaharrek ahalmen handia dute irudiak iradokitzeke.

Ikusi egin dugu hitzen esanahiak alda daitezkeela denboran zehar eta esparru kromatikoa zein irristakorra den ezagututa (bilakaera historikopetik ikusi behar), dakiguna **omenka** dakigula baieztatu beharrean gara.

Kolorearen esperientzia subjektiboa aditzera ematea zaila da berez eta ez hizkuntzaren arazoa. Euskarak hiztegi urria izateak ez du esan nahi gauzak adierazteko zailtasunak dituenik, eta egoerak eskatuta metafora, metonimia, perifrasi eta gainerako baliabideak oso gertu dituzte naturan murgildurik bizimodua duten baserritarrek, kasu. Gainera izendapen estandarrez gain oso irudimentsuki aipa ditzakete beste batzuk, baita ohikoekin ederki jolastu ere: *ubelurdina, balzgorritua, horizuriska, horibel, urdinbeltxaran, urdinabar, urdinarre, gorriurdin, zurinabar, beltzurdin...* Batzuetan bi eratara: *moregorri, gorrimore / gorbeltz, belzkorri...* eta, edozein modutan, maiz atzizkiekin hornituta: *berdeurdinska, urdingorrasta...*

4.2. EUSKARA GILTZARRI

Euskal kultura inondik inora ez da emaitza itxia, prozesu dinamiko bezala baino ezin dugu ulertu; gauza arruntzat jo dezakegu denbora igaro ahala mundua hautematen den eran aldaketa zenbait gertatzea. Koloreen kasuan, ekoizpen kulturalak diren neurrian eta eragile asko medio, mendebaldeko ikuskera indartsua nagusitzen joan da gurean: gutxiagotasun konplexuak jota, homologazioarenak edo, besterik gabe, ezjakintasunak, baina ikuskera arrotza etxekotzeko arrisku gorria dago, ordezkapena izatearena, alegia.

Estimulu berdintsuen aurrean guk ere ardi, asto, behi urdinik ikusten al dugu? Arriurdinetan harri urdinak ikusi? Gure bititokiak inguratzen dituzten Arrigorrista, Arrigorriaga, Urdiñola, Iturzurieta, Pagonabarreta, Mendibeltz, Landazuri eta abarretan zer ikusten dugu? Akaso gure euskara «gorrinduta» (gorrinak jota) dago?

Koloreen eremuan norberak duen egungo erreferentetik atzera begira ibili gara euskal ikuskerari erreparazio egiten. Ikusitakoa ikusita, inork esango luke –esaterako– gure gorria soilik kategoria kromatikoa dela? Honez gero euskal ikuskeraz jabetuta, ondo jakingo dugu geure kolore-hitzek, beste gauza askoren artean, **kolorea ere** adierazten dutela.

Edozein modutan kolorea estu lotuta agertzen da hizkuntzarekin eta geure kolore ikuskeran sakontzeko agerikoa da herri honen ezaugarri berezia eta behinena den euskara dugula giltzarri. Hizkuntza kulturaren osagarri eta adierazpiderik egokiena izanda, euskaldunon mundu ikuskera (bereziki mundu ikuskera zaharra) hizkuntzan bertan dugu, hauxe da gure agiri zaharretan garrantzitsuenak; nahiz eta aldaketak gertatu, erabilera batzuk ahanzturan gelditu, forma berriak hartu... bertan ditugu itsatsirik gure hautemateko erak, errealitatea antolatzeke erak.

Euskal ikuskera ezagutu nahi izanez gero, ezinbestean euskarak berak gordetzen duenaz jabetu beharrean gaude eta hitzen atzetik haratago joan, helburua ez baita hiztegi kromatikoa osatzea eta soilik euskaraz aritzeak ez du dena ziurtatzen. Har ditzagun –zein garaikoak diren ahaztu gabe– oso adierazgarriak diren Oteizaren hitzak, paradoxikoki, erdaraz azalduta:

«Nik gure hizkuntzan egun on eta arratsaldeon esan ohi dut, euskaraz jardun ahal dut hilda egonda ere, nire euskal nortasuna guztiz ezabatuta izanik ere.

Hizkuntza galduko dugu pentsatzeko modua aldatzen badugu, nahiz eta euskaraz hitz egiten jarraitu. Arrotza izango zaigu mintzairaren nortasuna eraldatuko delako; beste herri bat izango gara, gu jakitun izan gabe, herri bera garela sinistuta biziko garelako hizkuntzari

eutsi egin diogulakoan. Haatik, euskaldunak izatetik *euskarafonikoak* izatera iritsiko gara: gure historia linguistikoaren alderantzikatzea. Eta bidean gara».

(1963 - 1984a: 21)

Eta aipu honen aurretik:

«Gure hizkuntzaren bitartez pentsatzea ezin babestu-
bagabiltza, are zailagoa hizkuntza bera gordetzea».

(1965/66 - 1984b: 406)





*...bera itsua ez balitz,
ostadarra ez litzateke hain ederra.*

Ni ez naiz hemengoa, Joseba Sarrionandia

BIBLIOGRAFIA

- ARNHEIM, R. (1981): *Arte y percepción visual*. Madril: Alianza.
- AZKUE, R. M^a (-1906-1969): *Diccionario vasco – español – francés*. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.
- AZKUE, R. M^a (1989): *Euskalerrriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco*, I, III, IV Bilbo-Madril: Euskaltzaindia & Espasa Calpe.
- BARANDIARAN, J. M. eta beste (1961 y 1962): *El mundo en la mente popular vasca (creencias, cuentos y leyendas)*, II y IV. Donostia: Auñamendi.
- BARRIOLA, I. M. (1979): *Medicina popular en el País Vasco*. Donostia: Ed. Vascas.
- BERLIN, B. & Kay, P. (1969) *Basic color terms. Their universality and evolution*. Berkeley eta Los Angeles: University of California Press.
- Bostak bat lantaldea (1986): *3000 Hiztegia*. Bilbo: Adorez 7.
- BRUSATIN, M. 1987: *Historia de los colores*. Bartzelona, Paidós.
- ELHUYAR-ELKAR (1994): *Euskal Hiztegi Modernoa*. Donostia: Elhuyar-Elkar.
- ESPEJO MURIEL, M M. (1996): *Los nombres de color en la naturaleza*. Granada: Universidad de Granada.
- FINLAY, V. 2004: *Colores*. Bartzelona, Océano. (Aurreneko edizioa: 2002).
- GAGE, J. 1993: *Color y cultura*. Madril, Siruela.
- GARCÍA BONA, J. M. (1980): *Navarra. Setas y hongos*. Caja de Ahorros de Navarra.
- GRAN LAROUSSE UNIVERSAL (1990): *Enciclopedia*. Bartzelona, Planeta.
- HARLUXET (1998): *Harluxet hiztegi entziklopedikoa*. Donostia: Klaudio Harluxet fundazioa.
- HUDSON (1981): *La sociolingüística*. Bartzelona: Anagrama.
- IZAGIRRE, K. (1981): *Euskal lokuzioak*. Donostia: Hordago.
- KÜPPERS, H. 1980: *Fundamentos de la teoría de los colores*. Bartzelona, Gustavo Gili.
- LANDUCHIO, N.(-1562- 1958,): *Dictionarium linguae cantabricae*. Miguel Agud eta Luis Mitxelenaren edizioa, Seminario «Julio de Urquijo», Donostia.
- LARZABAL, P. 1975: Euskaldunak eta koloreak. *Euskera*, (XX), 401-405.

- LERSCH, P. (1971): *La estructura de la personalidad*. Bartzelona: Scientia.
- LURIA, A. R. (-1974-1980): *Los procesos cognitivos. Análisis socio-histórico*. Bartzelona: Fontanella.
- MAGNUS, H. (-1877-): *Evolución del sentido de los colores*. Buenos Aires: Hachette.
- MARINA, J.A. 1992: *Elogio y refutación del ingenio*. Bartzelona, Anagrama.
- MITXELENA, L. 1985: *Lengua e Historia*. Madril, Paraninfo.
- MITXELENA, L. (1990*): *Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia / Desclée De Brouwer / Mensajero. (*)
Liburukiak hainbat urtetan izan dira argitaratuak.
- MOKOROA, J.M. (1990): «*Ortik eta emendik*» *Repertorio de locuciones del habla popular vasca*. Donostia: Etor, Labayru, Eusko Jaurlaritza.
- OTEIZA, J. (-1963- 1984a): *Quosque tandem...! Ensayo de interpretación estética del alma vasca*. Donostia, Hordago.
- OTEIZA, J. (-1965/66-1984b): *Ejercicios espirituales en un túnel. En busca y encuentro de nuestra identidad perdida*. Donostia: Hordago.
- PASTOUREAU/SIMONNET (2006): *Breve historia de los colores*. Bartzelona: Paidós.
- PERURENA, P. (1992): *Koloreak euskal usuarioan*. Donostia, Erein.
- PRECIADO, J. M^a (1992): *Kolorea herri euskaldun batean*. Leioa: E.H.U. Argitarapen Zerbitzua.
- PRECIADO, Tx. (1995a): «Zergatik berde kategoria adierazteko euskal hitz jatorrik ez?». *Jakin*, 87: 77-100.
- PRECIADO, Tx. (1995b): «Koloreen bilakaera: euskal kasua». *Uztaro*, 13, 3-21.
- PRECIADO, Tx. (1996): Euskaldunak kolorerik ez. *Jakin*, 92: 75-88.
- RANCILLAC, B. (1992): *Vér y comprender la pintura*. Madril: Ediciones del Prado.
- SACKS, O. (-1995- 2002): *Zazpi kontaera paradoxiko: Antropologo bat Marten (I)*. Donostia: Gaiak.
- SARRIONAINDIA, J. (1985): *Ni ez naiz hemengoa*. Iruña, Pamiela.
- STÖETZEL, J. (1982): *Psicología social*. Alcoy, Marfil.
- TXILLARDEGI (1975): La structuration du champ semantique de la couleur en Basque, *Euskera*, XX, 221-238.
- URQUIJO, J. 1969: Nombres vascos. *Riev*, (V), 56-57.
- VILLASANTE, L. (1989): *Euskararen auziaz*, 9. liburukia, Luis Elizalde saila.
- WITTGENSTEIN, L. (-1922- 2001): *Tractatus Logico-Philosophicus*. Madril, Alianza.

ILUSTRAZIOAREN ITURRIAK

1. Egilearena
2. HPS
3. Egilearena
4. Egilearena
5. Deutsche Fotothek. Egilea: Eugen Nosko. Commons Wikimedia (Fotothek df n-14 0000300.jpg)
7. Deutsche Bundespost. Commons Wikimedia. (DBPB 1952 100 Wilhelm von Humboldt.jpg)
9. Egilearena
10. Egilearena
11. Egilearena
12. Egilearenak
13. Antton Olariaga: Berria, 2008-IX-19: 56. orr
14. Bidegileak bilduma. HPS
15. Egilea: Alice Wiegand. Commons Wikimedia (Katorffelschälen.jpg)
16. Egilea: S. Acharya. Commons Wikimedia (Black Turtle Bean.jpg)
17. Egilea: Jiterro. Commons Wikimedia (Eyes lumen design.svg)
18. Egilea: Jose Maria Plazaola. Commons Wikimedia (Betizua elurradan.jpg)
19. Egilea: Egilea: Fir0002, Commons Wikimedia (Rooster portrait dec08.jpg)
20. Egilearena
21. Egilearena
22. Egilearena
23. Egilearena
24. Gordexolako Ibarquen dorretxea. Egilea: Priamo. Commons Wikimedia (Encar 001.jpg)
25. Egilea: Fir0002, Commons Wikimedia (Chestnuts02.jpg)

26. Egilea: Thomas Bresson. Commons Wikimedia (ComputerHotline - Lune (by) (2).jpg).
27. Egilea: TwoWings. Commons Wikimedia (Car-Oradour.JPG).
28. Egilea: Basheer Tome. Commons Wikimedia (Unidentified white wine in glass.jpg).
29. Egilea: Tommy Kronkvist. Commons Wikimedia (Coprinus comatus-Sept 2008.jpg).
30. John Everett Millais «The Blind Girl». 1856, City Museum and Art Gallery, Birmingham.

